

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Ikus-entzunezko Komunikazioko gradua
Gradu Amaierako Lana
2013/2014 ikasturtea

Emakumeak eta bertsolaritza

Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspuntutik

Autorea: Izaro Zinkunegi Barandiaran
Zuzendaria: Marta Luxan Serrano
2014ko ekaina

EMAKUMEAK ETA BERTSOLARITZA

GAIK, BERTSOLARIEN PAPERAK ETA BERTSOAK GENERO

IKUSPUNTUTIK

Izaro Zinkunegi Barandiaran

LABURPENA

2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean jarritako gaiak, bertsolariek hartutako paperak eta hauek sortutako testuak genero ikuspuntutik aztertzen dira ikerketa lan honetan. Eduki-analisia erabili da tresna gisa horretarako. Eta azken urteetan bertsolaritzan genero ikuspuntutik egindako hausnarketek euren fruituak eman dituztela ikusi arren, oraindik ere ezberdintasunak badaudela, eta sistema kapitalista patriakarreko ereduak erreproduzitzen direla ondorioztatu da.

HITZ GAKOAK

Bertsolaritza, generoa, eduki analisia, testua, rolak.

EMAKUMEAK ETA BERTSOLARITZA

GAIAK, BERTSOLARIEN PAPERAK ETA BERTSOAK GENERO IKUSPUNTUTIK

AURKIBIDEA

0. Sarrera	4
0.1. Bertsoaz eta generoaz hausnartzen	4
0.2. Helburuak	4
0.2.1. Helburu orokorra	4
0.2.2. Helburu zehatzak	5
0.3. Metodologia	5
1. Testuingurua	8
1.1. Lehenengo emakume bertsolari haiek	8
1.2. Azken bi mendeetako bilakaera	10
1.3. Bertsolaritza modernoa	12
1.4. Bertsolaritza eta generoa	14
2. Analisia	18
2.1. 2013ko Txapelketa Nagusia, datu orokorrak	18
2.2. Gaien analisi orokorra	19
2.3. Saio hautatuen azterketa: gaia, bertsolarien papera eta testua	22
2.3.1. Prostituzioa=emakumea	22
2.3.2. Umore maskulinoa	24
2.3.3. Bikote gaztea eta haurdunaldia	25
2.3.4. Harreman askea	27
2.3.5. Guardia Zibila eta mutil torturatuak	28
2.3.6. Bikote harremanetako tratu txarrak	29
2.3.7. Adineko emakumea	30
2.3.8. Amaren altzoa	31
3. Ondorioak	32
4. Bibliografia	35

0. SARRERA

0.1. Bertsoaz eta generoaz hausnartzen

7-8 urte eskas nituen lehenengo aldiz bertso-eskolara joan nintzenean. Eta egia esan, neure borondatez baino, gurasoek hala nahita hasi nitzen: “ahizpa zaharra hasi da eta zu ere...”. Pixkanaka gustua hartu nion, eta plazaren batean bat-batean abestera ere iritsi nintzen. 16-17 urterekin ordea, uztea erabaki nuen, “kirolari lehentasuna eman niolako” esaten nuen garai hartan. Gerora ordea, ikusi dut erabaki bera hartutako neska bakarra ez naizela, eta oholtza gainean pasatako tratuek eta beste zenbait kontuk beste askori ere eragin dietela.

Horrelako hamaika erabaki eta joera ezkututzen dira tradizioz gizonena izan den jardun honen atzean ere. Hain justu, duela hamaika urte inguru hasi zen genero ikuspuntutik bertsolaritza aztertzen. Askizun bildutako emakume bertsolari haiek norbanakoarenak ziren beldur eta kezkak emakume izatearen baitan kokatzen zirela ikusi zuten. Eta ordutik, hamaika pausu eman dira ibilbide horretan gaurdaino. Horren fruitua izan dira esaterako hainbat emakume bertsolarik egindako gogoetak, 2009an sorturiko Bertsozale Elkarteko genero taldea edo aurtengo Bertso Eguna bera.

Ibilbide horretan oraindik urrats asko emateko daudenaren jakitun, bertsozaletik zerbait, bertsolaritik gutxi eta bertso-aditutik gutxiago dudan arren, euskal tradizio honetan genero ikuspuntutik egindako hausnarketan nire aletxoak jartzera animatu naiz, nire puntua abestera. Hala, betaurreko moreak jantzi eta iazko abenduan Montevideon streaming bidez ikusitako Txapelketa Nagusia hartu dut aztergai. Bertan jarritako gaiak, bertsolariek harturiko paperak eta hauek sorturiko testuak izan ditut lehengai, eta eduki analisia lan-tresna. Bertsolaritza ere neutroa ez denaren jakitun, genero ikuspuntutik dauden ezberdintasunak mahai gainean jarri eta hauei buruz hausnartzen hasi naiz. Hasi diot, librean egindako segidillako saio amaigabe bat baita ibilbide hau, bertsolaritza maite dugun guztiok konplize izan behar duguna, bertsolari, gai jartzaile, epaile, bertsozale... Eta nik ere konplize izan nahi dut bide honetan. Ea gustukoa duzuen!

0.2. Helburuak

0.2.1. Helburu orokorra

Ikerketa lan honen helburu nagusia 2013ko Txapelketa Nagusiko finaleko edukiak genero ikuspuntutik aztertzea da. Horretarako, urte horretako abenduaren 15ean BECen jokaturiko saioan

jarritako zenbait gai, bertsolariek horietan hartutako papera, eta paper horretatik kantaturiko bertsoetako testua bera izango dira aztergai. Hain justu, hiru arlo horien gaineko genero ikerketa egitea izango da xedea, hau da, jarritako gaien, bertsolariek hartutako paperen eta testuaren gainekoa.

0.2.2. Helburu zehatzak

Helburu orokor horretatik abiatuta, honako helburu zehatzagoak ere baditu ikerlanak:

- Bertsolariei finalean jarritako gaietan generoen arteko ezberdintasunik ba al dagoen aztertzea, eta alderik balego, horrek zertan datzan azaleratzea.
- Nolako rolak eraikitzen diren ikustea eta hauek jendarteko rolekin loturarik ba al duten hausnartzea.
- Bertsolariek zein roletatik abesten duten eta horretan zerk eragiten duen ikertzea.
- Umorezko gaiak eta gai dramatikoak generoari dagokionez nola lantzen diren eta hauen artean alderik ba al dagoen aztertzea.
- Bertsoetako testua genero ikuspuntutik ikertzea.

Eta nola ez, lan honek nagusiki hausnarketarako abiapuntua izan nahi du, beraz, ikerketa honen gaineko eztabaida sortu eta ekarpenak jasotzearekin batera, bertsolaritza eta generoari loturiko beste ikerlan batzuen pizgarri izatea eta hauek bultzatzea ere badu xede.

0.3. Metodologia

Ikerketa honen helburuak eta aztertu beharreko materiala kontuak izanik, eduki analisiaren metodologia erabiliko dugu analisia egin ahal izateko.

Gizarte Zientzietan erabiltzen den ikerketa tekniketako bat da eduki analisiarena. Jendarteko erakunde, elkarte, instituzio edota pertsonen eguneroko harremanetan sortzen den material komunikatzailea ikertzeko eta hau behar bezala ulertzeko helburua du honek funtsean (Juaristi, 2003: 215). Gure kasuan agerikoa da komunikazio ekintza baten emaitza izango dugula aztergai, hau da, 2013ko Txapelketa Nagusian gai-jartzaileek bertsolariei jarritako gaiak eta hortik abiatuta bertsolariek sorturiko testuak.

1952an Berelsonek emandako definizioaren arabera, “komunikazio baten ageriko edukiaren deskribapen objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa egiteko ikerketa teknika da” (Juaristi, 2003: 216). Honen arabera, objektibotasuna, sistematizazioa, zenbaketa eta ageriko edukia izan behar ditu beireizgarri eduki analisiak. Aitzitik, egun egiten diren eduki analisek, azterketa kuantitatiboez gain azterketa kualitatiboak ere barnebiltzen dituzte, ageriko informazioaz gain ezkutukoa ere kontuan hartzen baitute. Izan ere, datuen euskarria da testua, eta datuok zentzu sinbolikoa dute, hau beti agerikoa eta bakarra ez bada ere (Ruiz Olabuénaga, 2007: 196) Era berean, egungo eduki analisietan deskribapen soiletik haratago ere badoaz, eta zentzu horretan, inferentziak ere egin daitezke.

Zentzu honetan ulertu behar da guk egingo dugun eduki analisia ere. Are gehiago, ikerketa genero ikuspuntutik egin ahal izateko ezinbestekoa da deskribapena eta analisi kuantitabioa gainditu, eta inferentziak eta azterketa kualitatiboa egitea, honela soilik lortuko baitugu ondorio esanguratsuak ateratzera.

Juaristik azaltzen duen moduan, eduki analisia burutzerakoan kontuan izan behar dira honako osagaiak:

- Datuak: ikerlanaren helburuak zehaztean, aztertuko den material komunikatzailea zehaztu behar da. Gure kasuan, 2013ko Txapelketa Nagusiko gaiak, bertsolariek hartutako rolak eta horietatik abestutako bertsoak izango ditugu aztergai.

- Laginketa: datuen zerrenda zabalegia den kasuan, horietako batzuk aukeratzen dira metodo ezberdinen arabera (Juaristi, 2003: 221). Gure kasuan ere hori gertatzen da, bereziki azertu beharreko bertsoetako testuen kasuan. Horregatik, azterketak bi atal izango ditu nolabait. Batetik, Txapelketa Nagusiko finalean jarritako gai guztien analisi orokorra egingo dugu. Bestetik, finaleko bertso-saio batzuk soilik aukeratu ditugu, eta horietan jarritako gaiak, bertsolariek hartutako rolak eta rol horietatik abestutako bertsoen testuak aztertuko ditugu.

Halaber, beharrezkoa da saio hauek aukeratu ahal izateko irizpide zehatzak erabiltzea. Hain justu, gaiei buruz eginiko azterketa bera izango dugu horretarako abiapuntu, izan ere, gaia bera izango da bertso-saioak hautatzeko erabiliko dugun lehenengo irizpidea, horietako batzuk beste batzuk esanguratsuagoak baitira genero ikuspuntutik aztertzeko. Honi lotuta, bertsolariek gai horien aurrean harturiko rola bera ere beste irizpide bat izango da. Bestetik, finalean egindako ariketa ezberdinak ere irizpide moduan kontuan hartuko ditugu, azterketa aberatsagoa izan dadin eta ariketa batetik bestera alderik ba al dagoen ikusi ahal izateko balioko baitigu. Honek, halaber, banakako zein ofiziotako gaiak aztertzea ahalbidetuko digu,

baita umoretik egindako saioak eta saio serioagoak alderatzea ere.

- Azterketa unitateak: eduki analisia oinarrituko den komunikazio elementuak dira hauek. Hiru unitate bereizten dira: laginketa unitateak (ikertzaileak bereizten dituen zatiak), erregistro unitateak (laginketa unitatean bereizten den eduki zatia) eta testuinguru unitatea (erregistro unitate baten esanahi zehatza jakiteko aztertu beharreko laginketa unitatearen zatia). Gure kasuan, finaleko hautatutako saioak izango lirateke laginketa unitateak, saioa, gai bati abesturiko bertso-sorta bezala ulertuta betiere. Erregistro unitateak berriz, hitzak eta esaldiak lirateke, eta testuinguru unitatea berriz bertsoa. Sailkapen hau ordea orokortasunez ulertu behar da, saio bakoitzaren arabera posible baita aldatzea, betiere ikerketaren mesedetan.
- Erregistro kategoriak eta erregistroak: erregistro unitate bakoitza ikerketaren helburuen arabera definitutako kategorietan kodifikatzea da. Baina kasu askotan, gurean bezala, azterketa aurrera doan heinean sortzen dira, hau da, aztergai den materiala bera bihurtzen da kategoria sortzaile. Azterketan bertan ikusiko dugu beraz zein erregistro kategoriarekin lan egingo dugun.
- Inferentziak: eduki analisisien emaitzen zein mezuaren edukiarekin zerikusirik ez duten ondorioen formulazioa da honakoa. Horretarako, komunikazio ekintzaren testuingurua kontuan hartu behar da besteak beste, hala nola, mezuaren jatorria, sortzaileen intentzioa, komunikazioak izandako eragina eta abar. Gure kasuan, genero ikuspuntutik eginiko ikerketa izango denez, garrantzitsua izango da testuinguruko elementu hauek kontuan hartzea ondorioak atera ahal izateko, esaterako, bertsolariak zein roletatik abesten duen, honen generoak eraginik ba ote duen edo publikoari bertsolariak erabilitako kodeak ezagunak edo arrotzak zaizkion.
- Azterketa: azterketa kualitatiboa zein kuantitatiboa hartuko ditugu kontuan guk, hau da, edukiaren berezitasunak ba al dauden, eta hala bada, zein maiztasunekin agertzen diren behatzeaz gain, hauek zein modutan azaltzen diren ere erreparatuko dugu. Adibidez, bi saiotan umorea gizonen ikuspegitik lantzen dela esaten badugu, hori nola agertzen den ere azalduko dugu.

1. TESTUINGURUA

Ikerketari ekin ahal izateko, beharrezkoa da lehenik eta behin gaiaren testuingurua ezagutzea. Horretarako, hasteko, bertsolaritzaren historia ezagutuko dugu modu orokorrean, eta bertan emakumeek izan duten presentziari erreparatuko diogu bereziki. Bestetik, bertso txapelketak eta hauen bilakaera aztertuko ditugu, hemen ere, emakumeen presentzia kontuan hartuz nolanahi ere. Halaber, azken urteotan bertso munduan genero ikuspuntutik emaniko hausnarketak eta aldaketak laburbiltzen ere saiatuko gara, ikerketa egin ahal izateko funtsezkoa izango baita berau ezagutzea. Honen barnean, ikergai dugun azken Txapelketa Nagusiari ere erreparatuko diogu. Hau egin ahal izateko, orain arte eginiko ikerlanetan oinarrituko gara nagusiki.

Sarri entzun izan dugu bertsolaritza “gizonen mundua” dela. Egungo bertso-saioei begiratuz gero, bertsolari gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa dela ezin ukatu. Historian atzerago begiratuz gero alde hori handiagoa izan dela ikus dezakegu, baina, ez al da emakume bertsolaririk egon? Ikus dezagun.

1.1. Lehenengo emakume bertsolari haiek

Ezer baino lehen, bertsolaritzaren transimisioaren bi ardatzak aipatzea komeni da, ahozkoa eta idatzizkoa alegia. Gaur egun, ahozkoak, hau da, bat-bateko jendaurreko jardunak, pisu handiagoa duela esan genezake, baina bertso-paperak ere ezinbestekoak izan dira tradizio hau guganaino iriitsi ahal izateko. Hor ditugu, esaterako, hain ezagunak diren Xenpelarren “Pasaiaiko plazatik” eta “Iparragirre abila dala” bertso-sortak, edo Bilintxen “Behin batian Loiolan” eta “Loriak udan ihintza bezala”.

Aipatu ditugun bertsolariak gizonezkoak badira ere, Carmen Larrañagak (1997) “Del bertsolarismo silenciado” artikuluan dioten moduan, bertso-jarrien transimisoan paper garrantzitsua izan dute emakumeek. Berak azaldu bezala, bat-bateko bertsolaritza, espazio publikoetan eginikoa nagusiki, gizonezkoen eremua izan da historikoki. Aldiz, eremu pribatuan edo intimoagoan kokatu izan den bertso-paperen tradizioan emakumezkoen jardunak garrantzia izan du.

Historialariek diotenaren arabera, ahozko tradizioak artzain-aroan du jatorria, duela 10.000 urte inguru, eta hor kokatzen dela uste dute bertsolaritzaren jatorria. Halaber, bertsolaritzaren aurrekarietara jotzen badugu, ezin da aipatu gabe utzi emakumeen presentzia. Manuel Lekuona idazle, apaiz eta euskaltzain oiartzuarrak bertsolaritza ikertu zuen besteak beste, eta XV. mende

hasieran bat-batean aritzen ziren emakumeak zeudela aipatzen du, *profazadorak* eta *eresiac* bezala ezagutzen zirenak garai hartan. Emakumeok, hiletetan-eta abesten zuten, sarri modu satirikoan. Jone Miren Hernandezek (2006/2007) “Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea” lanean aipatu bezala, 1452ko Bizkaiko Foru Legea da honen froga, bertan, emakume hauen presentzia publikoa debekatzen baitzen.

Hori ezagutuagatik, ezer gutxi dakigu garai hartako bertso jardunaz, eta XVIII. mende amaiera XIX. mende hasieran aurkituko ditugu egungo bertsolaritzaren lehenengo haztarnak. Bat-batean ere jarduten zirela jakinagatik, nagusiki bertso-jarriak dira hauek. Garai honetakoak dira aurrez aipatu dugun Bilintx, oraindik orain hain ezaguna den Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* eta Pedro Mari Otaño bertsolariak. Hauekin batera ordea, azken honen lehengusina zen eta inor gutxik ezagutuko duen Plazida Otaño ere aipatu behar da. Argia aldizkariak ateratako “Bidea urratu duten bertsoak” (2014) liburuan aipatzen denez, bertsotan ederki moldatzen omen zen zizurkildarra. Bertan daude gordeta beraren zenbait ale, tartean, Zizurkilen pagotxa ebakitzen ari zela, Txirritak bere ondoan ez zela atsegin izango abeste ostean erantzundako hau:

“Arrazoi horrek badu
bere parezera,
konprenituko dezu
mutila bazera.
Udarako beruaz
kejatzen al zera?
Lana hortan badezu
egiten atzera,
fraile sartu zintezte
komentu batera.”

Plazida Otañorekin batera, Joxepa Antoni Aranberri Petrirena “Xenpelar” errenteriarra ere gogoratzen da liburuan. Hau ere bertsolari familiakoa, lehen aipaturiko Xenpelarren iloba hain justu. Bertan kontatzen denez, berari esker iritsi zaizkigu osabaren bertso asko gaurdaino. Hala ere, bere bertso-sorta batzuk ere biltzen ditu liburuak. Horietako bat, 1902koa, *Ibaizabal* aldizkarian publikatu zuten. Eta aipagarria da bertso hauen historia, aldizkariak antolatutako bertso-lehiaketa batean, “neskazaharrak” eta mutilzaharrak” gaiarekin Enrike Elizetxek neskazaharrei buruz idatzitakoei erantzuteko egin baitzituen. Hala dio hirugarren bertsoaren amaieran:

“Zeinek pentsatu zuk gure kontra

hola jartzerik bertsoak?
Ez gara bada zuk uste duzun
bezain enbidiosoak.”

Hauen bien garaikidea den Joxepa Matea Zubeldia Elizegi hernaniarraren izena ere biltzen du liburuak: “Alabak oso lotsatzen ziren bere ama bertsolari zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako. Eta ama hil zenean [Joxeparen] koaderno denak erre zituzten” (2014). Era berean, hamarkada batzuk lehenagokoa, 1818koa hain justu, “Gaboneco cantac vizcaitarrentzat” sorta Bizenta Mogel idazle ezagunarena da.

Hauekin batera, Larrañagak “Del bertsolarismo silenciado” lanean aipatu moduan, Kanboko Marie Argain eta Hasparrengo Maria Echegaray-ren erreferentziak ere baditugu (Larrañaga, 1997: 63). Lehenengoa 1895. urteko Ezpeletako Lore Jokoetan nagusitu zen gainera. XX. mende erdialdera salto eginez eta saridunen izenak aipatzen jarraituz, Inaxi Etxabe Oriden zumaiarrarena eta aipatu behar dira Justina Aldalur monja aiarrarena. Hauek, lehenengo eta bigarren sariak irabazi zituzten hurrenez hurren 1956an Zarautzen eginiko bertso-paper lehiaketa batean (Ibarguren, 2009/2010: 44). Halaber, honakoa idatzi zuen *Arantzazu* aldizkarian garai hartan bertsolari ezagunenetakoa zen Inazio Eizmendi *Basarri* errezildarrak garaipen hauen aurrean: “Como apreciarán nuestros lectores, ha sido un pleno triunfo femenino. Siempre existieron en nuestro país mujeres bertsolaris” (Larrañaga, 1997: 69).

Inaxi Etxabek ere badu Joxepa Antoni Aranberri “Xenpelar”-en pasartearen antzeko bat. Argiako liburuan kontatzen duenez, *Basarrik* emakumeen faltei buruz egindako bertso-sorta bati erantzun zion, gizonen faltak azalduz. Hala aitortzen du bertsolari zumaiarrak: “ni ez nintzen atrebitzen beragana [Basarrirengana] joaten, hain txikia ikusten nintzen bere ondoan...” (Eizagirre, 2014: 20), baina arrebak oso ondo erantzun ziola esan omen zion *Basarrik* Inaxiren anaiari.

Justina Aldalur monja aiarra eta bere bertso-paperak aipatu ditugu lehentxeago, eta Sebastianana Gesalaga “Zaldubi” monja zarauztarrarenak ere gogora ekarri beharko genituzke (Larrañaga, 1997: 71). 1924an jaiotako zarauztar honek aitarengandik jaso omen zuen afizioa, eta hori lantzeko aukera izan zuen konbentuan egon zen urteetan, Justina Aldalurren beraren ondoan. Aitari eta erlijioari buruz egindakoak dira honen lanik gehienak.

1.2. Azken bi mendeetako bilakaera

Hau guztia ikusita beraz, ezin esan dezakegu emakumeak bertso munduan atzo sartu zirenik,

ezta txapelketetan ere. Halaber, gehienak bertso idatzietan jardun arren, bat-batekoan ere euren aletxoak utzi dutenak badirela ikusi dugu. Eta bat-bateko bertsolaritza aipatzen hasita, honen lehendabiziko erreferentzia dokumentatua 1802. urtekoa dela aipatzen da (Garzia, 2012: 46). Antza denez, bi bertsolariren arteko desafioak izan ohi ziren. Baina egun nagusitzen den bat-bateko jardunaz hitz egiterakoan, XX. mendera jo behar dugu ezinbestean. Mende horretan bertsolaritzak aldaketa handiak bizi izan zituela esan dezakegu. Batetik, ordura arte hain ohikoak ziren taberna eremuak plazek ordezkatu zituzten pixkanaka. Horrela, bertsolaritza jardun “profesionalizatuagoa” bihurtuz nolabait esatearren. Era berean, egun Euskal Herriko kultur ekintza garrantzitsuenetakoa bihurtu den Txapelketa Nagusia jaio zen 1935. urtean. 70. hamarkadan berriz, bertso-eskolen sorrera hasi zen. Eta hamarkada bat beranduago Bertsozale Elkarteak sortu zen. Ikus ditzagun bada zehatzago aldaketa horiek eta bertsolaritzak izan duen bilakaera.

Aipatu dugu jada, XX. mendea baino lehen bazirela lore-jokoak bezala ezaguturiko bertso desafioak, eta hauekin batera baita bertso-guduak ere. Hala ere, bat-bateko bertsolaritzak taberna eta sagardotegietan izan zuen toki nagusia ordura arte. Eremu horretan jardun zuten bertsolarien artean *Txirritaren* figura da ziurrenik gehienontzat ezagunena. Baina *Txirritak*, bere garaiko beste bertsolari askok bezala, plazan ere abestu zuen. Urte horietan eman zen nolabait bertsolaritzaren “gizarteratzea”, herriko plazak, frontoiak, elizak, antzokiak... ere bertso-eremu bezala indartu egin baitziren. Honekin batera, egun ezagutzen dugun txapelketa formatua ere sortu zen. Joxerra Garziak azaltzen duenez, XX. mende hasieran, kalitate gabeko jarduntzat zeukaten bertsolaritza euskal intelektual gehienek. Horien artean bazen salbuespenik ordea, Manuel Lekuona eta Joxe Ariztimuño *Aitzol* besteak beste. Hauek bertsolaritzaren gaineko azterketa, eta honek euskal kulturaren zuen garrantzia nabarmendu zuten (Garzia, 2007: 83). 30. hamarkada hasierako mugimendu horien ondorioz edo, 1935ean Bertsolari Txapelketa jokatu zen lehenbizikoz. *Baxarri* nagusitu zen lehenengo edizio hartan, eta *Txirritak* hartu zion lekukoa hurrengo urtean. Lehenengo edizio horietan ez zen emakume bertsolaririk oholtzaratu, ezta hurrengo zenbaitetan ere.

Gisa honetako txapelketak egiten hasteak, egun hain ohikoak eta jarraituak diren txapelketen lehenengo harria jartzeaz gain, bertsolaritzaren “profesionalizazioa” ekarri zuela esan ohi da: bertsoa plazara atera zen, ordura arteko gai errealisten ondoan fikziozko gaiak agertu ziren... Espainiako Gerra Zibilak ordea, bertsolariak isilarazi zituen, beste hainbat ahotsekin batera. Hala, ez zen berriro Txapelketa Nagusirik jokatu 1960ra arte, eta bestelako saioak ere erabat gutxitu ziren, debeku eta zigorraren arriskuak eraginda. Honen ondorioz, “Isiltasun aldia” bezala izendatzen du Garziak (2012) 1936 eta 1945 arteko urteena. Hurrengo hamabostaldia berriz, “biziraupeneko bertsolaritza” delakoarena izan zen, eta zailtasunak zailtasun, Baxarri bera, Uztapide eta Balendin

Enbeita ibili ziren besteak beste bertsotan. 60ko hamarkadarekin batera, bertsolaritzak bere lekua hartu zuen oster, eta txapelketak egiten hasi ziren berriro. Halaber, eta garai hartako egoera politiko-soziala kontuan hartuz, aldarrikapenerako tresna izan zen bertsoa 60. eta 70. hamarkadan, besteak beste euskaltzaletasunarena.

1.3. Bertsolaritza modernoa

80. hamarkadan bertsolaritza asko garatu zela esan dezakegu. Batetik, garai hartako testuinguru politiko-soziala kontuan hartuta, 70. hamarkadaren bigarren erdian eta 80. hamarkadaren hasieran bertso-eskolak sortzen hasi ziren hainbat herri eta auzotan, hala nola, Leintzen, Santutxun, Algortan, Hernanin, Oiartzunen, Gasteizen, Aiaran... Euskara bultzatzea zen gehienek xedea. Xabier Amurizaren izena ere aipatu behar da garai honetan. Honek, 80ko eta 82ko txapelketak irabazi zituen, baina horrez gain, bertsolaritza modernoaren oinarriak ere markatu zituela esan daiteke, euskara batua, doinu berriak, neurri luzeen erabilpena eta metaforen erabilpena barnebiltzen baitzituen besteak beste bere bertsokerak. Horrez gain, Amurizak eragina izan zuen bertso-eskolen sorreran ere, horietako batzuk bere hitzaldien ondorioz sortu zirela esaten baita.

Halaber, ordura arteko txapelketa gehienak Euskaltzaindiak antolatu bazituen ere, 86ko edizioa bertsolariek beraiek antolatu zuten desadostasun batzuk tarteko, eta urtebete beranduago, 1987an Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak sortu zen, gaur egun Bertsozale Elkarte bezala ezagutzen dena. Honek hartu zuen Txapelketa Nagusia antolatzearen ardura. 1988an berriz, Euskal Telebista bertsolaritzari buruzko programa bat emititzen hasi zen, *Hitzetik Hortzera*. Urte hauetan, bertsolari berrien belaunaldiak agertzen ere hasi ziren, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Iñaki Murua eta Angel Mari Peñagarikano besteak beste.

Emakumeei dagokienean berriz, 1985ean Laudion hartu zuen parte lehenengo aldiz emakume batek Txapelketa Nagusia. Kristina Mardaras Sedrun iurretarra izan zen. Durangoko bertso-eskolan ibilia, hurrengo urtean jokatu zuen Txapelketa Nagusirako Araba-Bizkaiko kanporaketan abestu zuen (Eizagirre, 2014: 25). Mardarasekin batera, Arantzazu Loidi Garitano aretxabaletarra da garai honetan plazan aritutako lehenengotako emakumea.

90. hamarkadara salto eginez, Txapelketa Nagusiari dagokionean, Andoni Egaña aipatu behar da ezinbestean. Lau aldiz jarraian izan da garaile zarauztarra, 1993an lehenengo aldiz jantzi txapela zuenetik. Egañaz gain ordea, hamarkada honetan ere bertsolarien belaunaldi berria agertu zen, bertso-eskolan ibilitako bertsolariena gehienek kasuan. Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia,

Jexux Mari Irazu, Xabier Silveira... Mutil hauen ondoan ordea, baziren neskak ere, Maialen Lujanbio, Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Oihane Perea, Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldeg, Nerea Elustondo, Onintza Enbeita... Emakume hauen partehartzearen isla da Andoni Egañak 1997ko Gipuzkoako Txapelketako hasierako agurrean abestutakoa: “bertsolaritza aurrera doa/emakumeen harira; orduan gaitzat hartzen genitun/ ta orain eurak gai dira” abestu zuen zarauztarrak. Belaunaldi berri hau iritsi arte bertsolariak banaka sortzen ziren nolabait esateko. Aipaturiko hauen kasuan ordea, talde fenomeno bat gertatu zen, besteak beste bertso-eskolei esker. Honek erraztu egin zuen bertsolari gazte hauen ibilbidea hastea, baita emakumeak oholtza gainera ateratzea ere.

Emakume hauek, oholtzan beraien tokia egiteaz gain, txapelketetan parte hartu dute, baita zenbaitetan irabazi ere. Zehazki, Bertsozale Elkarteak antolatutako txapelketetan zazpi txapel irabazi dituzte, 1995ean lehenengoa lortu zutenetik gaurdaino: bi Nafarroakoan Estitxu Arozenak, hiru Arabakoan Oihane Perek eta bana Gipuzkoakoan eta Txapelketa Nagusian Maialen Lujanbiok. Eta nola ez, hauen amaierako agurretan beti izan dute presentzia beste emakumeek ere: “Gizartearen inposaketak/ bota dituen neskentzat” (1995, Leitza, Arozena), “Baina behin behar, ta omendu behar/ gaur emakume guziak” (2003 Irun, Lujanbio), “Bertso-eskoletan buru-belarri/ ari zireten neskentzat” (2007, Gasteiz, Perea), “Gogoratzen naiz, lehengo amonaz/ gaurko amaz ta alabaz” (2009, BEC, Lujanbio).

Aipaturiko belaunaldi horretako emakumeei erreferentzia egiteko, “*Drag King*-en belaunaldia” terminoa erabiltzen dute bertsolaritza genero ikuspuntutik aztertzen dihardutenek. Eurek diotenez, emakume hauek gorputza estalita eta feminitate markak apalduz oholtzaratzen ziren, gizonak bezala egin zezaketela erakutsi behar baitzuten bertsolaritza falokratikoaren testuinguruan. Belaunaldi horretako emakume bertsolarien lanari esker, egun emakume gazte gehiago ikus ditzakegu oholtza gainean. Hala, aurrekoaren parean kokatzen den “Panpinen belaunaldia” sortu da, emakume gazteagoek osatua, Miren Amuriza, Jone Uria, Alaia Martin, Uxue Alberdi eta beste hainbatek haragitua. Hauek, “politikoki politak” bezala definitu genitzake, feminitate markak agerian daramatzatenak. Horrek ez du esan nahi ordea fokoa askatasunean dagoenik. Bi belaunaldi horiei lotuta, Uxue Alberdik azaldu bezala, emakume bertsolariek bi estrategia subkontziente dituzte, edo gizona bezalakoa izaten saiatzearena, edo patriarkatuan molestatzen ez duenarena. Beharbada ez da oso zuzena ordea transformismo fenomeno hau bertsolaritzaren arloan soilik ematen dela esatea, izan ere, aipaturiko garaietako jendarteari erreparatzen badiogu ere, antzeko zerbait gertatzen dela ikusiko dugu, hau da, emakumeek onartuak izateko estrategia horiek erabili izan dituztela jendarteko bestelako esparruetan ere. Hortaz,

bertsolaritza jendarteko fenomeno orokor horren isla bat gehiago soilik dela ondorioztatuko genuke.

Ikusi dugu emakumeak bertsolaritzan presente egon izan direla historian zehar, baina jendarteko beste hamaika arlotan bezala, orokorrean eremu pribatuan jardun izan dute bertso-munduan ere, hau da, bertso-idatzietan. Gaur egun, eta XX. mendeko aipaturiko aldaketen ondorioz edo, bertsolaritza nagusiki bat-bateko jendaurreko jardunarekin lotzen dugu, eta eremu honetan gizonezkoen nagusitasuna nabarmena izan da, azken urteotan plazetan gero eta emakume bertsolari gehiago ikus baditzakegu ere. Joera nagusi horrek bere eragina utzi du egungo bertsolaritzarengan. Hala esan zuen 2014ko Bertso Egunaren harira egindako elkarrizketa batean Nerea Elustondo bertsolari legazpiarrak: “jaso dugun tradizio guztia maskulinoa da” (Goierriko Hitza, 2014). Bertsotarako postura, kantaera, umorearen trataera... hartzen ditu bere baitan tradizio horrek. Uxue Alberdik (2014) azaldu bezala, gizonezkoak behatzaile legítimoaren ikuspuntua eman izan dio bertsolaritzari, arrazioa, oratoria eta komunikazioa ardatz dituenak. Emakumeak plazan agertzean berriz, sentimenduak, emozioa, barne-bizitza, enpatia... agertu dira bertso-munduan.

1.4. Bertsolaritza eta generoa

Honen guztiaren aurrean honako galdera planteatu dute hainbatek: “nolakoa litzateke bertsolaritza egun, emakumeek garatu izan balute?”. Halaber, bertsolaritza teorizatu izan denean ere, barnetik eta gizonezkoek egin izan dute lan hori, eta haratago joanda, honakoa planteatzen dezakegu: “Maialen Lujanbioren ekarpena teorizatuko al da Xabier Amuriza edo Andoni Egañarena adina?”. Hauetatik eta antzeko galderetatik abiatuta hasi zen nolabait bertsolaritza genero ikuspegitik aztertzen. Jarraian, ibilbide horren nondik norakoa eta ateratako ondorio nagusiak laburbiltzen saiatuko gara.

2009ko martxoaren 3an, Ainhoa Agirreazaldegik eta Unai Muñozak mahai-inguru bat eskaini zuten Zarautzen bertsolaritza eta generoari buruz, Bilgune Feministak antolatutako “Emakume Astea”ren barruan. Ainhoak azaldu bezala, Egoitz Azpiazu moderatzailearekin aurrez adostu zituzten mahai-inguruko galdera nagusiak. “Noiz eta nola hurbildu zineten generoaren gaira? Zer eragin izan du bertsolaritzak, hurbiltze horretan?” izan zen lehenengo galdera. Agirreazaldegik honi erantzunez esan bezala, 2003. urtean hasi zen bertsolaritzan genero ikuspuntua lantzen. Urte horretan, bertso-munduko hainbat emakume asteburu pasa joan ziren Askizura (Getaria). Ordura arte, mundu horretan zituzten kezkak, beldurrak, ezinegonak... norberarenak zirela uste zuten. Hauek elkarri kontatzean ordea, kezka horiek konpartituak zirela ondorioztatu zuten, eta emakume

izatearen baitan kokatzen zirela. Hor hasi zen nolabait bertsoalaritzan generoa lantzearen ibilbidea. Eta hamar urte beranduago, 2013ko irailean, topaketa hauek egin ziren berriro leku berean, oraingoan, gero aipatuko dugun Bertsozale Elkarteko Genero batzordeak deituta. 16 eta 65 urte arteko 45 lagun bildu ziren bertan.

Maialen Lujanbiok Oreretan, 2007ko maiatzaren 11n, bertako bertso-eskolak antolatutako “Bertso Kritika” ekimenaren baitan eskainitako “Bertsolaritza emakumearen ikuspuntutik: bertsolaritza eta emakumea” hitzaldia ere aipatu zuen Agirreazaldegik ibilbide horretako beste mugarri bat bezala. Bertan, hainbat kontu azaldu zituen Maialenek eremu pribatu-eremu publiko dikotomia oinarri hartuta: bertso-eskoletako errealitatea genero ikuspuntutik, gizonen gaiei buruz abestu beharra, umore maskulinoa... Jarraian sakonduko ditugu ideia horiek.

Askizuko lehenengo topaketa haietara itzuliz, Uxue Alberdik esan bezala, bertsolari oso izateko zerbait falta zutela sentitzen zuten bertan bildutako emakume haiek, “besomotzaren besoa” metafora erabiliz. Berak azaldu zuenez, bertsolariari oholtzaren erdian jartzeko, nabarmentzeko, barrea eragiteko eta ozen abesteko eskatzen zaio, baina emakumea ez da horretarako hezten, eta ondorioz, deseroso sentitzen da oholtza gainean. Honen aurrean, emakume kontzientzia modu positiboan, aukera moduan ulertu behar dela planteatzen du berak.

Jendaurreko jardunari helduz, plazetako emakume eta gizonen bertsolari kopuruari erreparatzen badiogu, aztergai dugun 2013ko Txapelketa Nagusian %70 gizonezkoak ziren, eta %30 emakumezkoak (Alberdi, 2014, Kafe Antzokia). Ohiko plazetako saioetan alde horrek gora egiten du, emakumeak %20 baitira eta gizonak berriz %80. Honi lotuta, sarri emakume bertsolarien aldeko diskriminazio positiboa egin izan dela esan izan du Maialen Lujanbiok, saioko neskaren figura bete behar izan dutelako hainbatek, desagertzeaz dagoen espeziea balitz bezala. Positibotasun hori erlatiboa da ordea, izan ere, Lujanbiok berak kontatzen duenez, emakume batek bertsolari on bezala errekonozitua izateko hiru muga gainditu behar ditu: lehenengoa, “neska izateko ona duk” esaldiak laburbiltzen duena, bigarrena berriz, “nesken artean onentsuena duk”, eta hirugarrena “bertsolari ona duk”. Gainera, saioan emakume bakarra egotearekin nahikoa dela pentsatu izan da askotan, eta horren ondorioz, saioko emakume bakar horrek beste emakume guztien ordezkari izan beharraren sentsazioa bizitzen dutela diote hauek. Horrek, ezinbestean, denen izenean abestu beharraren sentsazioa dakar, sarri norbere borondateari eta sorkuntzari ateak itxiz. Bestetik, gizonezko bertsolari zaharren aldetik paternalismoa jasan izan dutela ere aipatzen du Lujanbiok (2007), parez pareko bezala hartu ordez, babesteko joera izan dutela alegia, azpitik baleude bezala.

Genero ikuspegitik gaiei erreparatuz gero berriz, hasteko, batetik, orokorrean neskei axola

zaizkien ustezko gai intimoak ez direla jartzen ohartuko gara, eta bestalde, emakumeek beraiek ez dute ohikoak diren gaiei buruz ezer esatekorik edo ekarpenik egiteko dutenik sentitzen. Ohiko gaiei buruz hitz egitean, eguneroko albistei buruz, politikaz, gizarteaz, kirolaz... ari gara. Bertsolariari “denetik jakitea” eskatzen zaio nolabait esatearren, baina Uxue Alberdik esaldi hori ez dela zuzena dio, izan ere, aipaturiko gaiak dira garrantzia dutenak, eta ez gai guztiak. Lujanbiok hala kontatzen du, hainbat saio eta txiste egin izan dituela burusoiltzeari buruz, baina gutxitan abestu izan duela depilazioari buruz, eta kasu gutxi horietan deseroso sentitu izan dela gainera. Halaber, emakumeen gaiak emakumeei beraiei jartzeko joera ere badago, esaterako, arrotza egingo litzaiguke gizonezko bertsolari bat amatasunaz abesten jardutea.

Gaietako pertsonaien rolei dagokienean ere alde nabaria dago emakumezkoaren eta gizonezkoaren artean. Gizonezko pertsonaien rolak ugariagoak eta landuagoak izaten dira, ondorioz, ñabardura gehiago dituzte eta zehatzagoak izaten dira. Emakumea aldiz pertsonaia indefinitua izaten da sarri: honen emaztea, haren alaba, bestearen maitalea... eta hori traba izaten da bertsotarako. Honi lotuta, batzuetan bertsolariari topikoa ez den pertsonairik ez zaiola burura etortzen dio Lujanbiok, eta bururatuz gero ere kosta egiten zaio hori publikoari deskribatzea. Uxue Alberdik dioenez, askotan gainera emakumeen paperak problematizatu egiten dira edo botere-gabe gisa planteatzen dira, eta honen aurrean haserretik, aldarrikapenetik edo biktimitatetik kantatzera behartuta daude bertsolariak.

Arreta deitzen du bestalde, umorearen tratamenduak ere. Batetik, emakume bertsolari gehienek umorea lantzen den neurrietan, zortziko txikian edo puntutan adibidez, puntuazio baxuagoa lortzen dute gizonek baino. Halaber, gehienek nahiago dute bestelako neurrietan jardutea. Honek generoarekin zerikusia duela pentsa daiteke beraz. Bestetik, bertsolaritzan beharrezkoak dira arketipo, irudi, rol eta kodigoak entzuleak bertsolariak abestutakoa uler dezan. Ildo horretatik, emakumeen gaien inguruan umorea egiteko erreferentziarik ez dagoela ikusten da. Honek bertsolariaren eta publikoarengan dauka eragina, batetik, bertsolariari zer abestu jakitea zailagoa egiten zaio, eta bestetik, publikoak ez daki nola erreakzionatu bertsolariak abestutako horren aurrean. Era berean, gizonekin sartzea baino zailagoa egiten zaio emakumeekin sartzea bertsolariari, bertso-afari bateko libreko saio batean esaterako. Ondorioz betiko topikoak errepikatzen dira: “zeinen dotore etorri diren/ pelukeritik pasata”, edo antzekoak.

Sexualitateari loturiko gaiei dagokienean ere antzeko zerbait gertatzen da, zakilari buruz milaka bertso abestu izan direnez, bertsolariak badaki nola egin umorea horren inguruan, baita entzuleak horren aurrean nola erreakzionatu ere. Aitzitik, aluari buruz ez denez abesten, ez dago

kodigorik, eta lehen azalduko errepikatzen da kasu honetan ere, bertsolariak ez du erreferentziarik eta publikoak ez daki nola erreakzionatu. Gizarteko rolak ere askotan birproduzitzen direla ikus daiteke bertsolariek hartzen dituzten roletan ere, adibidez, gizonezko pertsonaiak sexurako gogoazaltzearena eta hain topikoa den “ahaztuta dauka nolakoa zen” ideia abestearena. Era berean, ohikoa da bikote harremanetako gaietan “zure ama” arazo bezala planteatzea ere, eta gehienetan gizonezkoa den pertsonaiak abesten dio hori emakumezkoari. Halaber, adinekoen sexualitatea eta intimitateari buruz umorea egiteko dagoen joera ere deigarria da. Bikote harremanak aipatu ditugunez, ez dago soberan bikote eredu tradizionalaren nagusitasuna ematen dela esatea, nola gaietan hala bertsolariek hartzen dituzten roletan ere. Halaber, familiaren figurak ere sekulako pisua du, aztergai dugun saioan bertan ikusiko dugun bezala.

Adineko pertsonaien kasuan berriz, fenomeno bitxia gertatzen da; aurrez azaldu dugun bezala, egun plazaz plaza bat-batean dabilzan emakumeen belaunaldiak gazteak dira, 40 urtetik beherakoak. Badago salbuespen isolaturen bat, Rosi Lazkano Larrañaga aiarrarena kasu. 50 urterekin hasi zen Orioko bertso-eskolan, eta urtebete beranduago, 2009an abestu zuen lehenengo aldiz bat-batean jende aurrean. Salbuespenak salbuespen, 40 urtetik gorako emakumearen pertsonaia jartzean, ezinezkoa da bertsolariak “bere paperetik” abestea. Horrek topikoetan jaustea eragin dezake eta sinesgarritasun gutxiago izatea saioak, ezinezkoa baita bere bizipenetatik abesten jardutea. Gizonezkoen kasuan ordea, adin guztietako bertsolariak aurki ditzakegu oholza gainean. Dena den, adineko emakumearen pertsonaia jartzea ere ez da ohikoena, eta hemen ere erreferente falta dago.

Jendaurreko jardunetik eta gaietatik bertso-eskoletara salto eginez, hemen ere arreta deitzen duen fenomenoaren ematen dela ikusiko dugu. 2014ko Bertso Egunean eskaini zen “Zergatik Wally?” bideoan azaltzen den bezala, orokorrean, bertso-eskolan dabilzan neska-mutilen kopurua beretsua izaten da. Eskolartekoetan, mutilak gehiago izanagatik, aldea ez da hain nabarmena. 18 urterako ordea, nesken %80ak utzi egiten du bertso-jarduna. Honen atzean, besteak beste, hezkuntzaren faktorea dago. Batetik, bertso-eskoletan Uxue Alberdik azaldu bezala, “kantatu fuerte”, “atera bularra” edo antzekoak esaten zaizkie gaztetxoei. Hauek gizonezkoaren roletan bat datoz, ez ordea emakumeari egotzitako roletan. Halaber, Estitxu Arozenak esan bezala, neskak “perfekzionistak dira autodestruktiboraino”, eta oholza gainean sentitzen duten intseguritate horrek bertsolaritza uztera bultzatzen ditu zenbait. Intseguritate horri lotuta, emakume bertsolariek beraiek onartzen dute, esaterako, bi emakumeko bertso-afari batean deserosoago sentitu izan direla, saio txarra ateraz gero emakumeak direlako izan denaren usteagatik edo.

Testuinguruaren atalarekin amaitzen joateko, Bertsozale Elkarteari erreparatuko diogu. Bost sailek osatzen dute egun Elkartea: sustapena, transmisioa, ikerkuntza, komunikazioa eta lehenago aipaturiko genero taldeak. 2009an sortu zen azken hau, eta bertako kidea den Nerea Elustondok azaldu bezala, hiru emakumezko eta hiru gizonezko osatutako borondatezko talde bat da, eta elkarteko koordinatzaileak proposatuta sortu zen. Bertsozale Elkarteko web orrian irakur daitekeenez, Elkarteko sail bakoitzean genero ikuspegia eta parekidetasuna sustatzea, bertsogintzako agente ezberdinei honen inguruko formazioa eskaintzea eta egindako lan horren gizarteratzea dira sail honen helburu nagusiak.

Lanketa horretatik abiatuta iritsi zen besteak beste 2014ko Bertso Eguna ere. Generoa izan zen urtarilaren 25ean ospatutako egunaren gai nagusia, *Azalera* lemapean. Bertsozale Elkartearen Genero taldeak antolatu zuen Bertso Eguna, elkarteko sustapen batzordearen proposamenari erantzunez. Hainbat adinetako 37 emakumeko taldea arduratu zen zereginaz. Saioan bertan berriz, parte hartu zuten 56 sortzailetatik 48 emakumezkoak izan ziren. Nerea Elustondok aurpezkenean azaldu zuenez, duela urte batzuk pentsaezina zen gai horren inguruan egitea Bertso Eguna, eta azken urteotan bertsolaritzako emakumeen artean egin den bidearen seinale izan daiteke. Saioa emakume eta gizonentzako pentsatu eta egindakoa izan zela azaldu zuen: “ez gatoz inori lekua kentzera, baina guk ere nahi dugu gure espazioa”. Nolanahi ere, Bertso Egunak ikusmina eta eztabaida eragin zuen, nola saioaren aurretik hala hau igaro ostean ere. Zenbaitentzat deserosoa izan zen, Saioa Alkaiza bertsolari iruindarrak Argia aldizkariaren web-orriko “Bertso Eguna, saio deserosoa” artikuluan aipatzen duen moduan. Hain justu, antolatzaileek azaldu moduan, erantzunak baino, publikoarengan eta bertsolariengan generoari buruzko galderak sortzea bilatzen zen saioarekin, eta neurri batean behintzat lortu zela esan daiteke.

2. ANALISIA

2.1. 2013ko Txapelketa Nagusia, datu orokorrak

1935ean lehenengo aldiz jokatu zenetik, Txapelketa Nagusiaren 16. edizioa izan zen 2013koa. Aurrez esan bezala, Bertsozale Elkartek antolatu zuen. Urte horretako irailaren 29tik abenduaren 15era bitartean ospatu zen, eta 14 saio egin ziren denera. 43 bertsolarik hartu zuten parte guztira, 13 neskak eta 30 mutilek. Gai-jartzaile lanetan 14 lagun aritu ziren, 8 neska eta 6 mutil. Epaile lanetan berriz 16, 3 neska eta 13 mutil.

Hiru fasetan egin zen txapelketa: kanporaketak, finalaurrekoak eta finala. Kanporaketetan euren herrialdeko txapelketetan sailkatutako 36 bertsolari izan ziren lehian, 12 neska eta 24 mutil, sei bertsolariz osatutako seinataldetan. Saio bakarrera lehiatu ostean, talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasa zen hurrengo fasera, puntu gehien batutako beste hamabi bertsolarirekin batera. Horiei 2009an finalista izandako beste sei bertsolari batu zitzaizkien finalaurrekoetan, guztira 24 bertsolari beraz, 4 emakumezko eta 20 gizonezko kasu honetan. Bi itzulitara egin zen finalaurrekoa, saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasa zen bigarren itzulira, eta lehengoan puntu gutxien lortutako sei bertsolarik ez zuten kantatu bigarren itzulian.

Eta azkenik, zortzi bertsolari sailkatu ziren 2013ko abenduaren 15ean jokatu zen eta ikergai dugun BECeko finalera: 2009ko txapelduna, Maialen Lujanbio, eta finalaurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak, Amets Artzallus, Sustrai Colina, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. 7 mutil eta neska 1 izan ziren beraz BECeko oholtza gainean lehian. Hiru saiotan banatu zen finala: goizekoan eta arratsaldeko lehenengo saioan zortzi bertsolariak aritu ziren. Puntu gehien batu zituzten bi bertsolariek, Amets Arzallusek eta Maialen Lujanbiok, buruz burukoa jokatu zuten arratsaldeko bigarren saioan berriz. Amets Arzallus nagusitu zen azkenean. 2009ko lekukoa hartu zion Maialen Lujanbiori eta bera da egungo txapelduna.

2.2. Gaien analisi orokorra

Esan bezala, aztergai dugun saioak hiru zati izan zituen, eta lehenengoan honako lanak egin zituzten bertsolariek: zortziko handia, zortziko txikia, puntu erantzunak, sei puntuko motza eta kartzela banaka gaia emanda. Arratsaldeko lehenengo saioan berriz, hamarreko txikian, puntutan eta bakarka gaia emanda jardun zuten. Eta buruz burukora sailkatutako bi bertsolariak, sei puntuko motzean, zortziko txikian, 9ko motzean hitzari erantzuten eta kartzelan ere aritu ziren. Ariketa horietan guztietan, 22 ofiziotako gai jarri ziren guztira: 4 zortziko handian, 5 zortziko txikian, 5 sei puntuko motzean, 4 hamarreko txikian eta 4 puntutan. Banakako lanei dagokienean berriz, 24 puntu-erantzun, kartzelako bi gai, banakako 8 gai eta hitza izan ziren. Jarraian, gai horien inguruko analisi orokorra egingo dugu.

1986-2013 arteko Bertsolari Txapelketa Nagusien analisi estatistikoa egin dute Manex Agirrezabal Zabaleta, EHUKo IXA taldeko ikertzaileak, Bertol Arrieta Kortajarena, EHUKo IXA taldeko ikertzaileak, Aitzol Astigarraga Pagoaga, EHUKo RSAIT taldeko ikertzaileak eta Mans Hulden, EHUKo IXA taldeko ikertzaileak. Bertsoaren zenbait ezaugarriren txapelketaz txapelketako

bilakaera aztertu dute, besteak beste, errima ohikoenak, kartzelako ariketan aukeratutako neurriak eta euskara batuaren erabileraren zenbatekoa. Bi ataletan banatuta dago lana, eta guri lehenengoa interesatzen zaigu, 2013ko Txapelketa Nagusiko finalekoa alegia.

Sarri txapelketan gai tragiko eta tristeak nagusitzen direla esan izan da. Bada, ikerlan honetan finaleko gaiak banan-banan aztertu dituzte, eta gaien % 77a izan zen dramatikoa eta % 23a komikoa. Zortziko txikiko gaiei eta puntutako ariketari dagokionean nagusitzen da umorea, eta bertsolariek ere bide horretatik jotzen dute nagusiki ariketa horietan. Era berean, gai batzuk berez ez dira ez komikoak ez dramatikoak, bertsolariaren erabakiak egiten ditu komiko edo dramatiko. Kasu honetan bertsolariaren erabakia hartu zuten kontutan. Eta honen arabera, gaiaren komikotasuna esplizitua ez bada, nekez hartzen du bertsolariak umoretik jotzeko erabakia, eta horretarako kartzelako ariketan jarritako “egoerak beste aldean jarri zaitu” gaia aipatzen da ikerlanean, zortzi bertsolariek seriotik jo baitzuten.

Maialen Lujanbiok dramatikotasunerako joera hau kritikatu zuen Azpeitian (2012) eskainitako hitzaldi batean. Azken aldian bertsolaritza literaturizatzen ari dela ematen duela zioen berak, neurri luzeetarako joera eman izan da eta publikoa hunkitzea malkoa eragitearekin nahastu izan da sarri. Ondorioz, drama izugarriak eraikitzen ditu bertsolariak sarri, eta horrek sinesgarritasuna galtzea eragin dezake.

Gai dramatikoen nagusitasuna aipatu dugu, baina horietako batzuk gogora ekartzea ere ez legoke soberan: pertsonen desagerpena, alkoholismoa, heriotza, atentatuak, arazo ekonomikoak, tratu txarrak, arrazakeria... Halaber, gai komikoetan barrea eragiten duten arazoak eta egoerak planteatzen dira gehienbat: karneta kendu dioten semea eta aitarena, afari erromantikoak kalte egin dion bikotearena... baina kasu batzuetan ez-ohiko egoeretara ere jotzen da, hor dugu esaterako Olentzero eta Aita Noelen adibidea edo besarkadak banatzen ari diren pertsonaien gaia

Halaber, gaiei orokorrean begiratzen badiegu, familiak presentzia handia duela ohartuko gara: aita, ama, semea, alaba, gurasoak... Baita bikote-harremanek ere, nola ofiziotako lanetan zein bakarkakoetan, hala gai serio zein umorezkoetan ere. Gurasoen figura agertzen den kasuan, aipagarria da seme-alabekiko ardura edo kezkaren ideia agertzen dela, esaterako, hauek biluzik argazkiak ateratzen ikustean edo honen bikotearen gurasoak ez gustatzean. Familiak eta bikote-harremanek horrelako presentzia izatea jendarteko joeraren isla dela esango nuke, hau da, oraindik orain, familia pisu handia duen instituzioa da. Gainera, familiaz hitz egitean, eredu tradizionala datorkigu burura, haurrak dituen bikote heterosexualaren alegia. Eta bikote-harremanei dagokienean ere gauza bera gertatzen da. Bertso munduan ere eredu horiek birproduzitzen dira nagusiki.

Berriro gaietara itzuliz, behin eta berriz eta ariketa ia denetan errepikatzen den beste elementu bat lanarena da, edo hobeto esateko, enpleguarena edo ordainpeko lanarena: irakasleak, prostitutak, auto-tailerreko nagusia eta langilea, komertziala, pailazoak, elikagai-bankukoak, talo-postukoak, psikiatra... agertzen dira. Era berean, etorkinen gaia ere behin baino gehiagotan errepikatzen da, hiru aldiz hain justu, puntu erantzunetan zein banakako lanetan. Kasu batean, Maialen Lujanbioren kartzelako azken saioan, bertsolariaren erabakiaren ondorioa da etorkinen gaia agertzea, “itzultzeko garaia da” baita gaia. Eta etorkinena aipatzen den aldiro, bazterkeria soziala eta arrazakeriaren ideiak ere agertzen dira. Hortaz, jendartean pil-pilean dagoen eta kezka sortzen duen gaia dela esan dezakegu.

Puntu erantzunen ariketari erreparatzen badiogu, hasteko, gaurkotasuneko gaiak duten nagusitasuna nabarmendu behar da: bertsolaritza, adierazpen askatasuna, kirola, Nelson Mandelaren heriotza, AHT eta tartalariak, hezkuntza, etorkinak eta diru beltza. Honek, testuinguruan esandako berresten du beraz. Bestetik, gizonezkoen presentzia ere aipa genezake, kirolari erreferentzia egitean kirol profesionalaz eta maskulinoaz diharduelako, errugbyaz eta futbolaz zehazki. Nelson Mandela eta tartalarien aipamenak ere horren adibide lirateke.

Kartzelako bakarkako lanetan berriz, ariketa honetan ohikoa den bezala, gaia oso zabala da eta bertsolariaren esku geratzen da nagusiki honen aurrean hartuko duen papera eta ikuspuntua zehaztea. Honen adibide da “egoerak beste aldean jarri zaitu” gaiaren aurrean zortzi bertsolariek hartu zituzten paperen aniztasuna. Hala ere, politika gaiak eta bikote harremanak errepikatzen dira nagusiki, ziurrenik gizartean interesa sortzen duten gaiak direlako biak ala biak ere, eta ondorioz publikoarengana iristeko errazagoak direlako. Politika gaietan, gaurkotasuna duten bi aldetako biktimen errekonozimendua (Aitor Sarriegirena), epaiketa politikoak (Sustrai Colinarena) edo presidentetza (Igor Elortzarena) leudeke. Bikote harremanei buruz abestutako saioetan berriz, bikote-ohia, biktimaren alarguna, bisitara datorren bikotea... aipatzen dira. Hauetan amaren figura errepikatzen da behin baino gehiagotan, baita semearena ere.

Genero ikuspuntuari dagokionean berriz, orokorrean ez da genero markarik zehazten gaietan, hau da, “guraso”, “bikote” edo “ume” gisako terminoak erabiltzen dira, eta ez “ama”, “seme”, “senar”, “emazte” edo antzekoak. Lanpostuen kasuan ere ez da genero markarik zehazten. Kasu hauetan bertsolariak berak erabakitzen du zein ikuspegitik abestu, baina hau aurrerago sakonduko dugu. Hala ere, badaude bestelako zenbait adibide ere, esaterako, atentatuan hil zioten aita, aita-semeak, ama bisitatzera doan pertsona edota alabarekin bikotea bisitatzera doana. Honek gaia zehatzago egiten du, eta ondorioz, bertsolariaren papera ere mugatuagoa geratzen da. Hala ere, kasu

gehienetan ez da bertsolariaren pertsonaiaren generoa bera zehazten, egoeraren parte den beste pertsonaiarena baizik.

Generoa zehazten ez den gaitan normalean bertsolariak bere paperetik abesten du, hau da, gizonak gizonenetik eta emakumeek emakumeenetik. Adibidez, Maialenek emakumearen paperetik abestu zuen tratu txarrak jasaten dituenaren eta seme-alaben etxerik etxe dabilen adinekoaren gaiak jartzean. Honek zalantza bat jartzen du mahai gainean, mutilen batek gai horiekin abestu balu zeinen paperetik abestuko zukeen? Orokorrean bertsolari bakoitzak bere generotik abesten duela esan badugu ere, hori ez da beti horrela, eta aipagarria da esaterako, bi mutilek emakumeen rola hartzea prostituten paperetik abesterakoan, gaiak horrelakorik zehazten ez duen arren. Hau aurrerago sakonduko dugu ordea.

Emakumearen rolei begiratzen badiegu, zenbaitetan problematizatuta aurkezten zaigula ohartuko gara: haurdun dagoen neska gaztea, gurasoa espetxean duen alaba, zahar-etxean burua galduta duen ama... Honek, testuinguruaren atalean azaldutakoa berresten du. Hala ere, lehen esan bezala orokorrean tragikotasunera jotzeko dagoen joera kontuan hartuta, ez nuke askorik nabarmenduko emakumearen rolak problematizatzearen ideia, izan ere, gizon zein emakumea izan, pertsonaia gehienak aurkezten zaizkigu ikuspuntu tragiko horretatik.

2.3. Saio hautatuen azterketa: gaia, bertsolarien papera eta testua

Gaien analisi orokorra burutu ostean, ikerketarekin aurrera jarraitu ahala izateko, finaleko saio batzuk soilik hautatu eta aztertuko ditugu, metodologiaren atalean zerrendatutako irizpideei jarraituz, hauetan gehiago sakondu ahal izateko eta azterketaren mesedetan betiere. Has gaitezen bada. Aukeratutako bertso saioak eta hauetan jarritako gaiak bigarren eranskinean aurki daitezke, saioan abestu ziren eta jarraian aztertuko ditugun ordena berean.

2.3.1. Prostituzioa=emakumea (2. eranskina, 1. aztergaia)

Gaiak hala zehazten ez duen arren, Beñat Gaztelumendik eta Unai Iturriagak emakumeen paperetik abesten dute, eta bezeroak berriz gizonetzkoak dira. Hitzei bere horretan begiratzuz gero, ez dute esaten emakume edo gizonen paperetik ari diren abesten, baina gizonetzko bezeroak aipatzeak hori iradokitzen digu: “apaiz zaharrak” edo “Strauss Kahn”. Hala ere, zehaztu beharra dago genero marka gabeko bezeroen aipamenak ere egiten direla: “enpresariak”, “politikoak”, “bankutako

zenbait putre”, baina gizartean postu horiek betetzen dituzten pertsonak gizonezkoak izan ohi dira, eta beraz, gizarteko ohiko joerek eta publikoak barneratuta dituen kodeek bezeroak gizonezkoak direla eta emakumeen paperetik ari direla abesten ondorioztatzera garamatzate. Funtsean, eta esandakoa laburbilduz, jendartean agintzen duen eta onartuena dagoen harreman heterosexualean oinarritzen dira bertsolariak bertso-saio honetako rolak aukeratzerakoan eta horien arabera bertsoak osatzerakoan.

Bide hau lehenengo bertsoa abesten duen bertsolariak markatzen du, Beñat Gaztelumendik beraz. Eta bigarrenak, Iturriagak, bide berari jarraitzen dio, nahiz eta azken bertsoan Strauss Khan aipatu arte ez den hori nabarmentzen. Maialen Lujanbiok (2012) azaldu bezala, bertsolaritzan sorkuntza ez da bakarkakoa, jardun gutxietakoa da aldi berean bi pertsonak edo gehiagok batera sortzen dutena. Berak dioenez, lagunaren diskurtsoak eragiten dio edo eragin beharko lioke behintzat bertsolariari. Dena ez dago norbere esku, beste rol batean jar baitezake lagunak, edo gaia berak definitu. Kasu honetan ere lehenengo bertsolariak, Gaztelumendik, bidea markatzen duela esan dezakegu, emakumearen paperetik eta ezintasunetik abesten baitu. Hala ere, ez dizkio ateak erabat ixten Iturriagaren sorkuntzari, hau da, ez du bere rola erabat markatzen. Honek ordea, Gaztelumendik markatutako bideari jarraitzea erabakitzen du.

Halaber, abstrakzioetik abesten dute bi bertsolariek nolabait esateko, hau da, ez dute apenas deskribapenik egiten beraien itxurari, ogibideari, lan-lekuari... buruz. Beraien bezeroen aipamenak lirateke deskribapenaren barruan aipa ditzakegunak. Horren ordezt, gizartearen jarrera eta legeak kritikatzeko dituzte, egoeran gehiago sakondu gabe.

Honi lotuta, aipatzekoa da bertsolari bakoitzaren lehenengo bertsoan soilik aipatzen dela isunen kontua, gizarteak prostituzioari buruz duen pentsaerari, legei... buruz ari baitira. Gaitik atera direla esango luke zenbaitek, baina jendartean mintzagai ez diren gaien aurrean gehiago onartzen da joera hori, eta prostituzioarena gai horien artean sar dezakegu.

Uxue Alberdik (2014) aipatu bezala, emakumearen rolak problematizatzeko, haserretik, aldarrikapenetik edo biktimitatetik abestera behartzen ditu bertsolariak. Kasu honetan ere hori gertatzen dela esan dezakegu; Gaztelumendik biktimitatetik abesten du nagusiki, eta zentzu horretan, nabarmentzekoak dira berak abestutako hiru bertsoen bukaerak: “ordaintzeko guk baino problema/ gutxio izango dute”, “aspertu bainaiz egitan, errudun izan beharrarekin/gizartearen begitan”, “bizio hutsa da beraiena/ eta gurea beharra”. Era berean, biktimitatea iradokitzen diguten hitzak ere badaude: tamalez, negarra edo pena esaterako. Iturriagak ere abesten du biktimitate zantzua duen esaldiren bat, baina aldarrikapenaren eta haserrearen bidetik gehiago jotzen du:

“noizbait onartu beharko dute/ hau ogibide bat dela” edo “ta ez legoke arazo hori/ legezko izango balitz”.

Bestetik, temako gaia da aztertzen ari garen saiokoa, hau da, bi bertsolariak posizio beretik abiatzen dira: biak prostitutak dira eta bien bezeroei jarriko dizkiete isunak. Posible litzateke batak erabakiarekin ados dagoenaren paperetik abestea, eta besteak aurkakotik. Kasu honetan ordea, ez da eztabaida hori sortzen, eta bakoitzak bere hiru bertsoak osatzen ditu, bestearenak gehiegi eragin gabe nolabait esateko.

2.3.2. Umore maskulinoa (2. eranskina, 2. aztergaia)

Zortziko txikian, ohikoa den moduan, umoretik jarduteko gaia jartzen die kasu honetan ere gai-jartzaileak bi bertsolariei. Era berean, bertsolaritzan ohikoa den moduan, eta Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 15ean jokatu zela kontuan hartuta, gaurkotasuneko, edo behintzat, denboran hurbilekoa den egoera baten aurrean jartzen ditu, hau da, San Tomas egunean, taloen postuan.

Gaiak, ohikoa izan daitekeen barrea eragiten duen arazo bat planteatzen die Iturriaga eta Elortzari, eta posizio ezberdinetik abiarazten ditu bi bertsolariak, lehenengoa taloak egin eta egin eta bigarrena bezeroekin berriketan. Beraz, bien arteko gatazka gaiak berak markatzen du. Bertsolarien rola ere, hein handi batean, gaiak berak zehazten duela esan dezakegu, gaiaren zehaztasuna dela eta. Beraz, bertsolariek ez dute rolari dagokionean sorkuntzarako aukera handiegirik.

Unai hasten da bertsotan, eta lehenengo bertsoan egoeraren deskribapena egiten du hasteko. Alta, bertsoaren azken puntua da guri gehien interesatzen zaiguna genero ikuspuntutik. “Eta zuk hor txistorra/dantzaten diezu”, abesten du Iturriagak, txistorra hitzarekin jolastuz. Honek, ezinbestean, lanean zehar hainbatetan aipatutako umorearen tratamendua berrartzera garamatza berriro ere. Esana dugu jadanik ohikoa dela umorea egiterakoan sexu gaietara jotzea. Kasu honetan, Iturriagak testuinguruaren parte den hitza, “txistorra” hartu eta inplizituki bada ere sexuarekin lotzen du, zehatzago esateko zakilarekin. Umore maskulinoaren parten den lotura hau publikoak erabat barneratuta dituen kodeen barnean sartzen da, eta ondorioz badaki bertso honen aurrean nola erreakzionatu behar duen, barrearekin alegia. Iturriagak eginiko sexuaren aipamen horrekin batera, ligatzeko ahaleginarena ere badago esaldi horren atzean, eta rol horretatik abestera behartzen du nolabait bere bertso-kidea.

Aitzitik, Igorrek bere lehenengo bertsoan bestelako bide bat jorratzen du, zaharraren eta modernoaren arteko jokoa planteatzen baitu: Iturriaga talogile zaharra, eta bera marketinaren bidez lanbidea modernizatzeko ahaleginetan ari dena. Eta bigarren bertsoan ere bide beretik jarraitzen du, ile zuriaren eta autentizidadearen aipamenekin. Iturriagak berriz, alferra dela leporatu, eta lehenengo bertsoan egin bezala, bigarrenean ere hitz-joko batekin erantzuten dio. Kasu honetan, “taloa” hitzarekin egiten du hori: “eta talogileak/ talo aurpegia”. Eta hirugarrenean ere, haserrea adierazi eta donostiarraren egitea leporatzen dio.

Azkenik, bere lehenengo bi bertsotan ez bezala, hirugarren bertsoan bestelako bide bat hartzen du Elortzak, Iturriagak lehenengoan proposatutakoa alegia. Honek lehenengo bertsoan egin bezala, umorea sexuarekin, eta zehatzago esateko zakilarekin lotuz ixten du bertso saioa: “orain egidazu bat/txorixo onarekin”. Kasu honetan txistorraren orde “txorixoa” hitza da horretarako aitzakia, baina umore konnotazio bera dauka honek ere.

Azterketa egin ostean, eta ondorio moduan honakoa esan dezakegu: egoeraren parte diren edo testuinguruan aurki ditzakegun hitzak aprobetxatuz, umorearen tratamendu maskulinoa (ligoteoa, txistorra, txorixoa...) egiten dute bi bertsolariek. Kode horiek ohikoak direnez eta publikoak barneratuta dituenek, barrearekin erreakzionatzen du. Honekin, bertsolariak ikuslearengana iristea lortu duela ulertzen dugu. Honen aurrean, galdera hau bururatu dakiguke? Posible al da gai honekin bestelako umore bat lantzea? Eta hala bada, erantzun bera jasoko al genuke publikoarengandik? Horretarako, ezinbestean, bertsolariek beste ikuspuntu batetik abestu beharko lukete hasteko behintzat.

2.3.3. Bikote gaztea eta haurdunaldia (2. eranskina, 3. aztergaia)

Gaiak bi norabidetatik lantzeko aukera ematen du, gaian bertan bata ala bestea zehazten ez denez, nahigabeko haurdunaldiarenetik edo nahita bilatutakoarenetik alegia. Bikote gazte bat izanik, nahigabeko haurdunaldia errealagoa iruditzen zaigu barneratuta ditugun ohitura eta pentsaerengatik, eta bertsolarientzat ere errazagoa da ziurrenik ikuspuntu horretatik abestea. Halaber, seiko motzeko ariketa dela jakinik, lehenengo bidea izango litzateke gehienek aukeratuko luketena, neurri honetan ere gaien tratamendu dramatiko ugariagoa baita umorezkoa baino. Nahigabeko haurdunaldiaren bide hau lehenengo abesten duen bertsolariak, Sarriegik markatzen du, lehenengo bertsoan beste bidea erabat ixten ez badu ere. Baina Unai Iturriagak ere bertso-kidearen bide bera jarraitzea erabakitzen duenez, nahigabeko haurdunaldi bati buruz osatuko dute saioa.

Bertsolarien rolei erreparatzen hasita, Iturriagaren pertsonaia nahiko definitua da, haurdun dagoen eta bikotea duen 16 urteko neska baten papera ezartzen baitio gaiak. Aldiz, gaiak ez du zehazten Sarriegiren pertsonaiaren generoa, bikote hitza erabiltzen baitu, bai ordea Iturriagarena, haurdun dagoela esatean hain justu. Kasu honetan posible izango zatekeen Sarriegik neskaren paperetik abestea, eta oso apurtzailea izango zen hala eginez gero, ziurrenik publikoko asko deseroso sentitzeraino. Era berean, bertso-kidea lekuz kanpo uzteko arriskua ere izango zuen paper horretatik abesteak, eta honek saioa bera kolokan jar zezakeen. Baina arrazoa edozein izanagatik ere, gizartean agintzen duen bikote eredu heterosexuala hartzen du eredu Aitorrek, eta mutilaren paperetik abesten du.

Honi lotuta, ez dago gaizki Maialen Lujanbiok (2012) esandakoa gogora ekartzea. Honek dioenez, hainbat faktorek eragiten diote bertsolariari zein paperetatik abestuko duen erabakitzerakoan, tartean, norberak oroimenean dituen edo jendartean nagusi diren bertsoek, iritzi dominanteek, ahotsek... Eta horien inertziari edo jendeak espero duenari ihes egitea zaila dela dio berak. Honi, bat-bateko bertsolaritzak duen denboraren muga erantsi behar zaio gainera, bertsolariak segundo gutxiko tartea baitu bere ikuspuntua erabaki eta bertsoa abesteko. Honek guztiak topikoetan jaustera daramatza sarri bertsolariak. Eta gainera, Lujanbiok berak dioenez, batzuetan ez da topikoa ez den pertsonairik burura etortzen, eta bururatuz gero ere kosta egiten da hori jendeari deskribatzea. Gai hau izango litzateke egoera horren adibide bat.

Bertsolariak abestutakoari orokorrean begiratzen badiogu, Sarriegik arazoari aurre egiteko ausardia baino, ihes egiteko jarrera (“zu lasaiago biziko zara/ eta ni ere bai”) edo indarrik ez duenarena (“datorrenari aurre egiteko/ ez naiz gai sentitzen”) erakusten du. Iturriagak berriz, Sarriegiren aurka jotzen du eta haserrea azaltzen du.

Bertsoetako testuari dagokionean, genero ikuspuntutik arreta deitzen duten hamaika gauza aurki ditzakegu, tartean, Sarriegiren lehenengo bertsoa. Lehenego hiru puntutan abesturiko “urte mordoa jarraika”, “hala nahita” eta “zu bezalako neska polita/ nik nola ez maita” hitz eta esaldiek sistema patriarkarrean errotutako ideia batzuk azaleratzen dituzte, hala nola, bikote harreman posesiboa eta fisikoaren garrantzia. Era berean, haurra berea al den galdetzen dio, eta horrek berarekin bakarrik ez ote den ibili iradokitzen du. Honi, biktimismoarekin edo negarrarekin baino, haserrearekin erantzuten dio Iturriagak, “lerdo ahalena” deituz, bere koldarkeriarekin sartuz edo nahiago lukeela umea berea ez balitz esanaz.

Bestetik, Iturriagaren azken bertsoan agertzen den beste ideia bat ere aipatu beharko genuke, kondoiarena hain justu. “Kondoirik gabe propio/nahiago zendun de dio”, abesten du azkenaurreko

bi puntutan honek. Mutilak hala nahi zuelako izan zituztela sexu-harremanak kondoirik gabe esaten du zeharka, eta beraz, neskak ez zuela ezer esan, edo esandakoa ez zela kontuan hartu ondoriozta daiteke. Ideia hau ere, lehen aipaturiko bikote harremanen ereduaren isla litzeteke.

Amaitzeko, gaizki-ulertu moduko zerbait dago bi bertsolarien artean euren azken bertsoetan. Izan ere, Iturriagak biharamuneko pilula aipatzen du bere bigarren bertsoan, eta Sarriegik pilula hartu duela ulertzen du honekin. Ondorioz, lasaitasuna eta ardura gainetik kendutako sentazioa agertzen du bere azken bertsoan. Aldiz, Iturriagak egoera lasaiago horri buelta ematen dio berriro, pilula orduan hartu behar zuela eta orain branduegi dela abestuz. Finaleko bertso saio bat izanik, eta bertsolariek hiruna bertso soilik osatu behar dituztenaren jakitun, saioak hor bukatu behar zuen, eta beraz, amaiera irekia izan zuela esan dezakegu. Bestelako saio batean ordea, esaterako bertso afari batean, bertsolariek bertso kopuruaren muga hori izango ez balute, ziurrenik ez zen saioa hor amaituko, Iturriagaren bertsoak Sarriegiren erantzuna eskatzen baitu nolabait. Hau ordea, gaitik aldentzea litzateke eta bere horretan utziko dugu.

2.3.4. Harreman askea (2. eranskina, 4. aztergaia)

Esana dugu jadanik kartzelako gaia oso zabala izaten dela eta bertsolariaren esku geratzen dela honen aurrean hartuko duen papera eta ikuspuntua zehaztea. Maialen Lujanbiok amaitu berri den bikote-harreman bateko pertsonaren ikuspuntutik abesten du, eta lehenengo bertsoaren azken puntuan zehazten duen moduan, utzi duten bikotekidearen paperetik zehatzago esateko. Ez du zehazten zein bikote-eredutaz ari den sexuari dagokionean, soilik harreman askea zutela aipatzen du. Era berean, ez du bere adinari, generoari, itxura fisikoari, arrazari, kulturari edo maila sozialari buruzko deskribapenik egiten, ezta bere bikotekideari buruz ere. Beraz, bertso-saio honetan ere abstrakziora jotzen dela esan genezake.

Hain justu, aipatu berri dugun harreman askearen ideia da akaso bertso-sorta honetan azpimarragarriena. Harreman askea defendatzen duen pertsona baten paperetik abesten du Maialenek, bikotea izan arren beste batzuekin harremanak izateko aukeraren alde egiten duen baten ikuspuntutik alegia. Hori bigarren bertsoan diotenak erakusten du: “ez al nintzen ni nahi zuna/harreman bat liberala; beheko etxean sua ta/noiz nahi noranahira bala”. Harreman askearen ideia gero eta zabalduagoa dagoen arren, oraindik orain ez dago oso barneratua, bikotea zerbait itxia bezala ikusten baita orokorrean. Horregatik, Lujanbiok ez-ohiko ikuspuntu baten alde egiten duela esan dezakegu saio honetan bere pertsonaia eraikitzerakoan.

Lehenengo bertsoaren amaieran dioen bezala, berak utzi izan ditu bikoteak, baina orain bera utzi dute. Halaber, bigarren bertsoaren amaieran esaten duenaren arabera, beste norbaitengatik utzi du bikoteak. Eta bere bikotea zena bera maitatzera ezin duela behartu badakien arren, eta honi zorientasuna opa dion arren, ezintasunetik eta minetik abesten du nolabait esateko. Honen isla dira “hain tamala”, “destinu zitala”, “iruditzen zait minetan/ odolustutzen noala”, “nere lore gozo zena/ nahiz bihurtu zaidan asun” edo antzeko hitz eta esaldiak.

Honenbestez, azken bi bertsotan erabiltzen duen bigarren pertsona aipatuz amaituko dugu Lujanbioren kartzelakoaren analisia. Aurreneko bertsoan ez bezala, “zuk”, “daukazu” “ezin zaitut”... eta bigarren pertsona adierazten duten markak daude azken hauetan, eta honek nolabaiteko hurbilpena eragiten du publikoarengan. Lehenengo pertsona ere erabiltzen du, bere buruarekin dauzkan kontraesanak eta galderak azaltzerako orduan. Hala eta guztiz ere, saioa bere osotasunean hartuz gero, erabilitako abstrakzioak eta gaiarekiko hartutako ikuspuntu ez oso ohikoak (harreman askearen inguruko hausnarketa eta norber kontraesanak), publikoak bertso hauek ulertzeko nahikoa kode eta erreferentzia ba ote zituen hausnartzera ere eramanez gaitzake, baina honek berak beste ikerketa lan bat beharko eskatzen duenez, ez dugu honetan gehiago sakonduko.

2.3.5. Guardia Zibila eta mutil torturatuak (2. eranskina, 5. aztergaia)

Maialen Lujanbioren kartzelako lana aztertu ostean, Amets Arzallusek ariketa berean egindakoa aztertuko dugu jarraian, gai bera abiapuntu izanagatik oso bestelako saioa burutu baitzuen lapurtarrak hartutako paperaretik eta ikuspuntutik hasita.

Honako honetan, jendea torturatzeagatik akusatuta epaitua izaten ari den guardia zibil baten paperetik abesten du Amets Arzallusek. Lehen aipatu dugu gaia oso irekia dela eta ez duela pertsonaiaren generoa zehazten. Ametsek ere, Maialenen kasuan bezala, ez du hitzez adierazten emakumezkoa edo gizonezkoa den. Baina bertso saio honetan gizonezkoa dela ulertzen dugu, goardia zibil torturatzaile baten pertsonaia eraikitzean orokorrean gizonezkoa irudikatzen baitugu, nahiz eta ez lukeen derrigorrez hala izan beharko.

Ametsek, Maialenek ez bezala, deskribapen zehatzetara jotzen du hasieratik. Hala, bere iraganari buruzko datuak ematen hasten da, Andaluzian jaio zela, Rodriguez hiru abizen, ikasketetan txarra, bere lanbidearen nondik norakoak... Laburbilduz, Donostiara heldu arteko ibilbidea azaltzen du lehenengo bertsoan, eta “intxaurrondoak astintzen” hitz-jokoarekin Donostiako koartelean lan egitera iritsi zela esaten digu zeharka azken puntuan. Bigarren bertsoan

berriz, koartel horretako tortura saioak deskribatzen ditu. Ametsek gaurkotasunera eta errealitatera jo zuen nolabait, Euskal Herrian tortura salaketak ohikoak baitira atxilotuen partetik. Gainera, Txapelketa Nagusiko finalaren testuinguruan, bi epaiketa politiko egiten ere ari ziren, eta bietan izan ziren tortura salaketak. Gaia gaurkotasunarekin lotzeak jendearekiko gertutasuna ere badakar nolabait.

Lehenengo bi bertsoetan iraganari buruz ari da Amets, eta abestu ere iraganeko denboran egiten ditu. Hirugarrenean ordea, orainaldira jotzen du eta epailearen aurrean kokatzen du bere burua akusatu modura. Hemen lotzen du bere bertso-saioa gaiarekin, bertso honetako lehenengo puntuan abestu bezala, “heldu da aro berria” eta orain bera da beste aldean dagoena, hau da, akusatuen tokian eserita eta isilik dagoena. Hala ere, etsipenez baino, esperantzaz amaitzen du bertsoa Arzallusek, presidenteak indultatuko duenaren esperantzan.

Maialenek egin bezala, Ametsek ere bigarren pertsona erabiltzen du bere bigarren bertsoan. Kasu honetan ordea, Maialenek ez bezala, toka egiten du, hau da, mutilei zuzendutako hitanoan, “duk”, “baduk”... Honek, genero ikuspuntutik erreparatuz gero, torturatuak mutilak zirela ondorioztatzera garamatza, eta bertso bereko bigarren puntuan erabiltzen duen “mutilik” errimak ideia hori indartzen du. Hirugarren bertsoan ere berriro aipatzen du hitz hori. Halaber, exajeraziora ere jotzen du: “ez da izango Euskal Herrian/ ikusi ez dudana mutilik”. Honek, biktimak ez direla neskak izan ondorioztatzera garamatza. Urrunago joanda, eta torturatuak militante politikoak izan daitezkeela kontuan hartuta, biktimak emakumeak ez izateak militantziaren esparruan emakumeek duten protagonismoa eta presentzia txikiagoa dela iradokitzen duela ere otu dakiguke, hau da, gizonen nagusitasuna dagoela esparru horretan ere.

2.3.6. Bikote harremanetako tratu txarrak (2. eranskina, 6. aztergaia)

Gaien analisi orokorrean esana dugu jadanik bikote harremanek zer nolako presentzia izan zuten gaietan, bada, hau da horietako adibide bat. Era berean, gai dramatikoaren adibidea ere izango litzateke, egoera tragiko baten aurrean jartzen baititu bi bertsolariak. Gaia nahiko zehatza da egoerari dagokionean, bertsolariak espazio zehatz batean kokatzen baititu eta ekintza zehatz bat ere badago bertan. Akaso, pertsonaien paperak irekixegoak dira, ez baitu hauei buruzko zehaztapenik ematen, adinari, sexuari, arrazari... dagokionez. Bikoteaz hitz egitean ere ez du zehazten zernolako bikote-eredua den. Beraz, bertsolariak beraiek gaiak zehaztutako ekintza ardatz hartuta eraikitzen dituzte pertsonaiak.

Hala, Igorrek gizonezkoaren paperetik abesten du. Lehenengo bi bertsotan hori ez badakigu ere, azken bertsoan bere arrebari buruz hitz egitean ohartzen gara horretaz. Maialenek berriz ez du esplizituki esaten bera emakumezkoa ala gizonezkoa den. Aldiz, tratatu txarrak eman dizkion bikotea gizonezkoa dela hitzez adierazten du, azken bertsoan “senarra” hitzarekin erreferentzia egiten baitio honi. Halaber, Lujanbiok emakumea ala gizona den hitzez esan ez arren, Igorrek arrebari egindako erreferentziak, berak senarra aipatzeak eta berriro ere jendartean nagusi den bikote-eredu heterosexualaren irudiak, emakumearen paperetik abesten ari dela pentsatzera garamatza. Gainera, bikoteen arteko tratatu txarren biktimen gehiengoa emakumezkoa da, eta beraz, errazagoa eta errealeagoa ere egiten du saioa Maialenek paper horretatik abesteak.

Aurrez esana dugu emakumeen paperak sarri problematizatu egiten direla gaitan. Kasu honetan, lehen esan dugun bezala, ez da zehazten gaian bertan Maialenen pertsonaia emakumea denik, baina biderik errazena eta Maialenek berak hartutakoa hori dela jakinik, pertsonaia problematizaturik aurkezten zaigunik ezin ukatu.

Beraien lehenengo bertsoetan Maialenen bikote-harremanaz abesten dute bi bertsolariek, orokortasunez eta deskribapenetan sakondu gabe. Horrez gain, denerako laguntza ere eskaintzen dio Igorrek. Maialenek berriz, gaiak dioen musu-zapia ematearen keinua hartu eta honekin hitz-jokoa egiten du, zapia ematea eskertzen diola eta musua ematea ere eskertuko lukeela esanaz. Bigarren bertsoan itxaropena adierazten du Igorrek, egoera horretatik ateratzea posible dela eta bera horren testigu izan dela esanaz. Honek nolabaiteko zalantza eragiten du, izan ere, azken bertsoan arrebaren indarkeriaren testigu izan dela esango ez balu, indarkeriaren biktima bera izan dela uler dezakegu. Eta egia esan, Maialenen bigarren bertsoko lehenengo puntuak ere (“zuk ere pasatuak/ egunik beltzenak”) hori ulertarazten du, edo behintzat hori pentsatu zuen Lujanbiok berak.

Euren azken bertsoetan berriz, gaiak aipatutako mugikorrari egiten diote erreferentzia, Igorrek arrebaren zenbakia emango diola esanaz, eta Maialenek telefonoz bestalde inor ez zegoela eta Igorrek entzun zezan ari zela hizketan aitortuz.

2.3.7. Adineko emakumea (2. eranskina, 7. aztergaia)

Kartzelako banakako ariketan ez bezala, kasu honetan gaia zehatza da: adineko pertsona, hiru seme-alabek zaindua euren etxeetan, bakoitzak 4 hilabetez. Eta berriro etxez aldatzeko maleta egitera doan unean kokatzen du gainera. Beraz, kasu honetan bertsolariak ez dauka pertsonaia eraikitzeko erabaki askorik hartzeko.

Gaia zehatza izanagatik, ez du zehazten pertsonaia emakumezkoa ala gizonezkoa den. Kasu honetan, Maialen Lujanbiok berak erabakitzen du emakumearen paperetik abestea, eta horren froga dira “andre” eta “amona” hitzak. Genero ikuspuntutik egindako ikerketak azaltzean aipatua dugu jada ez dela ohikoa adineko emakumei buruzko gaiak jartzea, eta beraz, hau jarri izana azpimarratzekoa da. Era berean, esana dugu ez dabilela apenas 40 urtetik gorako emakumerik plazaz plaza bertsotan, eta honakoa izango litzateke horren isla, ezingo bailuke inork bere paperetik abestu. Aitzitik, bertsolaritzaren aurkakoa da nolabait joera biologikoa, hau da, adineko pertsonen artean emakume gehiago dago, gizonezkoek baino bizi-itxaropen luzeagoa dutelako.

Ariketa honetan deskribapenera jotzen du Lujanbiok. Hala, lehenengo bertsoan bere buruari buruz dihardu nagusiki: 82 urte, azal zimurtua, nekatua, tristea... era berean, bere buruarekiko kontraesanak ere azaltzen ditu. Bigarrenean berriz, bere ibilerari eta familiari buruzkoak aipatzen ditu: botikaren kontrola, barre egiten dutenaren susmoa... Eta azkenekoan alabaren etxera joatea tokatzen zaiola dio, eta bizitza eta heriotzaren arteko mugaz ere jarduten du.

Maialenek ikuspegi ezkorretik abesten du, seme-alabentzat karga bat den eta heriotzaren zain dagoen pertsonaia bat eraikitzen baitu. Zentzu horretan, errealismora jotzen du, egoera horretan bizi den pertsona batek sentimendu hori izatea ohikoa dela esan baitezakegu bizitza errealean. Era berean, ez du egoera horren aurrean ekiteko jarrerarik erakusten, horrela jarraitu beharra daukala esaten baitu. Bestalde, bere buruaz kezkatu arren, familiaz ere kezkatzen dela esaten digu, eta sendia gogaitzen duen sentimenduak adierazten ditu. Hau ere, egoera honetan bizi den adineko emakume baten ohiko sentimendua dela esan dezakegu, eta emakumeen kasuan gehiago errepikatzen dena gainera ziurrenik gizonezkoen kasuan baino. Hau, nagusiki, adineko emakumeek beraien bizitzan zaintzara bideratutako lanak egin behar izan dituztelako da, bere seme-alabena, bilobena, adineko familiakoena... Ondorioz, bestea beraien buruaren aurretik jartzeko ohitura dute, eta era berean, badakite zaintza lanak zernolako karga dakarren hau egin behar duenarentzat.

2.3.8. Amaren altzoa (2. eranskina, 8. aztergaia)

Ez da oso ohikoa ariketa hau plazetako bertso-saioetan, baina ohikoa bihurtu da Txapelketa Nagusiko buruz burukoan. Teknikoki ere zailtasun handikoa da, neurri eta errima kopuruari dagokionean. Kasu honetan, hitza du gaitzat bertsolariak, erabat irekia da beraz ariketa. Horregatik, bertsolariak berak erabaki behar du hitz horri buruz zer abestu, eta normalean hitza deskribatzera jotzen dute, esaterako, hor ditugu Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek 2009ko Txapelketa Nagusian suari buruz abestutakoak.

Eta hiru urte beranduago, “altzoa” izan zuten bi bertsolariek gaitzat. Ametsek amaren altzoari abesten dio, beraz, amatasunarekin lotzen du hitza bera. Lotura hori aprobetxatuz, bere txikitako esperientziak eta amaren deskribapena egiten du (“usai goxoa”, “kresala”), baita honen magalarena ere (“goxoa”, “apala”, “zabal-zabala”). Bosgarren eta seigarren puntuetan ordea, amari buruz hitz egitean ez da bereari buruz soilik ari, orokorrean ari da, eta horren froga da besteak beste esaldi hau “amaren ahala/ da unibertsala”.

Orain arte esandakoa kontuan hartuz, eta bertsoari genero ikuspuntutik erreparatuta, egungo gizartean amatasunak duen esanahia eta honi egozten zaion zaintza lana islatzen dituela esan dezakegu testuak. Era berean, amaren eta haurraren arteko lotura eta harremana beti estua izatea zerbait unibertsala dela iradokitzen digu, oso barneratua dugun ideia hau ere. Azkenik, emakumeari egozten zaion rola ere presente dago, “goxoa” eta “apala” hitzak aipatzen direnean.

3. ONDORIOAK

Ikerlana bukatzeko, orain arte azaldutako eta aztertutako guztian oinarritu eta ondorioak ateratzea dagokigu. Horri ekingo diogu jarraian, hasieran aipaturiko helburuak bide-orri gisa izanik betiere.

Lehenik eta behin, 2013ko Txapelketa Nagusian BECen jarritako gaien gaineko analisisa kontuan hartzen badugu, gai tragikoen, eta gaurkotasuneko eta interes orokorreko gaien nagusitasuna aipatu beharko genuke. Gaurkotasuneko eta interes orokorreko gaiak esatean, komunikabideetan oihartzuna dutenei buruz ari gara. Honen adibidea da puntu-erantzunetako ariketa, eta politika, gizonezkoen kirola, emigrazioa edo Mandelaren heriotza aipatu ziren hemen. Ondorioz, komunikabideetan bezala, gizonezkoen presentzia nagusitzen da bertsoetako ariketa honetan ere. Aldiz, gainerako ariketetan gehienetan ez da genero markarik erabiltzen gaiak formulatzerakoan, nahiz eta badauden salbuespenak. Hau, bertsolaritzan azken urteetan egindako genero hausnarketen fruitu izan dela esango nuke. Hauei esker, pixkanaka, gizonezko pertsonaien nagusitasuna ahultzen doala esan dezakegu, baita emakume indefinituaren pertsonaia bera ere. Horren ordeztu, bertsolariari generoaren atea irekita uzten zaio, eta berak erabakitzen du zein roletatik abestu.

Gaietan errepikatzen den beste faktore bat familiaren eta bikote-harremanen presentzia nabarmena da. Honek gizarteari erreparatzera garamatza derrigorrean. Hemen ezinbesteko instituzio bezala ulertzen dugu oraindik orain familia. Eta nola ez, familiaz eta bikote-harremanez hitz

egitean, harreman heterosexual eta tradizionalak nagusitzen dira, jendartean onartuenak direnak eta agintzen dutenak beraz. Hau ere ordea, gaiak eta gai-jartzaileak baino, bertsolariaren erabakiak zehazten du gehienbat, honek eraikitako pertsonaiak eta testuak alegia. Eta aipagarria da, salbuespen modura, eredu dominante horretatik ateraz, bikote-harreman aske bati buruz Lujanbiok eginiko saioa.

Bertsolariek hartutako rolei eta horietatik abestutako bertsoei erreparatzen badiegu ere, gehienak jendartean agintzen duten ohitura, tradizio eta joeren isla direla ondorioztatuko dugu. Nabarmentzekoa da esaterako, generoa zehazten ez den kasuetan gehienetan bakoitzak beretik abestu arren, emakumearen pertsonaia eraikitzea erabaki zutela bi gizonezko bertsolarik, prostituta paperetik abesterakoan. Honek, prostituta emakumearekin lotzeko dugun joera orokorra erakusten du, ez soilik bertsolaritzan, jendartean ere barneratua dagoena.

Halaber, genero ikuspuntutik bertsolaritzan egindako hausnarketek erakutsi duten bezala, emakumezko pertsonaiak sarri problematizatuta eraikitzen direla esan dugu lehen, eta ondorioz, biktimismotik, haserretik eta aldarrikapenetik abestera behartuta daudela. Bada, kasu honetan ere bertsolariek beraiek horretarako joera izan zutela esango genuke, hara hor hamasei urterekin haurdun geratutako neskaren, tratu txarrak jasaten dituen emakumearen edo etxez etxe dabilen adinekoaren adibideak. Hala ere, gai tragikoen nagusitasuna kontuan hartuta, hemen ez da gehiegi nabarmentzen generoen arteko aldea, biak ala biak ikuspegi ezkor horretatik eraikitzen direla esan baitezakegu.

Erregistroz aldatuta, umoreari dagokionean, ariketa zehatz batzuetan soilik agertzen da orokorrean, zortziko txikian eta puntukakoan zehazki. Eta hemen, aztertu dugun talo postuko ariketa erreferentzia gisa hartzen badugu, umore maskulinorako joera dagoela esan dezakegu. Kasu honetan, umorea egiteko erregistro edo kode ohikoa erabiltzen du bertsolariak, publikoak barneratua duena eta honen aurrean nola erantzun badakiena. Esaterako, txistorra eta zakilaren arteko lotura egitean edo gizonezko saltzaileak ligatzeko duen interesa aipatzean, ikusleak barrearekin erantzungo du. Gainera, txapelketako saioa den kasuan, bertsolariak publikoaren harrera ona ziurtatzea gehiago bilatzen duela gehituko nuke, gutxiago arriskatzen duela alegia, bestelako saio batean ez bezala sailkapena baitago jokoan, eta kasu honetan Euskal Herriko txapela bera.

Laburbilduz, orain arte esandakoa kontuan izanik, bertsolaritzan azken urteotan genero ikuspuntutik egindako hausnarketek beraien eragina izan dutela esan dezakegu. Aitzitik, 2013ko Txapelketa Nagusiko finalean ikusi bezala, oraindik ere ezberdintasunak badiirela ezin ukatu. Izan ere, oraindik orain, bertsolariek hartutako rolek eta eraikitako pertsonaiek orokorrean jendartean

nagusitzen diren ereduak erreproduzitzen dituztela ikusi dugu. Bada, zerk eragiten du horretan? Galdera honi buruz hausnartzeko, Lujanbiok Azpeitian (2012) esandakoa gogora ekarri nahiko nuke: bertsolaria ez da iritzi liderra, ez da pentsamenduaren banguardia, gehiago da begirada kontua. Begirada lantzeko gaiei eta gaurkotasunari buruz pentsatzea, eta horien aurrean kokatzea da gakoa bere hitzetan. Bertsolariak ikuspuntua hautatze eta pertsonaia eraikitze horretan hainbat faktorek eragiten dute: jendarteko iritzi dominanteek, norbere pentsaerak, gai-jartzailearekiko harremanak, gaiak, testuinguruak, norberaren egoera pertsonalak, bertsokideak hartutako bideak... Hasteko, horietako asko ez daude bertsolariaren kontrolpean, eta hala dauden gaineko erabakiak kontzienteki hartzea ere zaila da sarri. Halaber, askotan bertso munduan fikzioaren eta errealitatearen arteko anbiguitasuna dago, eta hauek biak nahastuta daude etengabe. Horrek, bertsolariak rol bat hartzeko edo gauza batzuk kantatzeko konplexuak izatea eragin dezake (Lujanbio, 2012, Azpeitia). Era berean, aurrez esana dugu ohikoak ez diren rolak eta pertsonaiak bururatuagatik, horiek deskribatzea ere zaila egin dakiokela bertsolariari.

Arrazoi hauek eta beste hamaika direla medio erreproduzitzen dira sarri sistema kapitalista patriarkarreko rol, pertsonaia, harreman-eredu eta abar luze horiek bertsolaritzan ere. Hortaz, “zein da honen aurrean bertsolariaren ardura?” galde dezakegu. Bertsolariak berak modu kontzientean aukeratzea eta erabakitzea da gakoa. Esan ahal denetik, esan nahi deneranzko bidea egitea alegia (Lujanbio, 2012, Azpeitia).

Hala ere, ezin da pentsatu bertsolaritza bertsolariak bakarrik sortzen duenik. Eta beraz, bertsolariei bezala, gai-jartzaileei, epaileei, publikoari eta bertsozaleoi ere badagokigu gurea dugun tradizio hau genero ikuspuntutik lantzen eta gozatzen jarraitzea. Asmo horrekin egin da hain justu ikerketa lan hau, aurrerantzean hausnarketa gehiagoren abiapuntu izango denaren esperantzan.

4. BIBLIOGRAFIA

Agirreazaldeg, Ainhoa (2009). *Generoa eta bertsolaritza*. Zarautz: bertan eskainitako mahai-ingurua. [<http://www.bertsozale.com/eu/generoa/dokumentazioa/artikuluak/2009-03-03%20Ainhoa%20Agirreazaldeg-i-%20Generoa%20eta%20bertsolaritza.pdf>] (2014ko otsailaren 15ean kontsultatua).

Agirrezabal Manex, eta besteak (2014). “1986-2013 arteko Bertsolari Txapelketa Nagusien analisi estatistikoa”. *Bertsozale*. [<http://www.bertsozale.com/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia-2013/albisteak/1986-2013-arteko-bertsolari-txapelketa-nagusien-analisi-estatistikoa>] (2014ko apirilaren 10ean kontsultatua).

Alberdi, Uxue (2014). *Bertsolaritza: begirada feminista bat*. Bilbo: Kafe Antzokian eskainitako hitzaldia.

Alkaiza, Saioa (2014). “Bertso Eguna, saio deserosoa”. *Argia*. [<http://www.argia.com/albisteak/bertso-eguna-saio-deserosoa>] (2014ko otsailaren 26an kontsultatua).

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013. *Bertsozale*. [<http://www.bertsozale.com/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia-2013>]

Eizagirre, Estitxu (2014). *Bidea urratu duten bertsoak*. Lasarte-Oria: Argia eta Emakunde.

Garzia, Joxerra (2012). *Bertsolaritza*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.

Garzia, Joxerra (2007). “History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal”. *Oral Tradition*, 22/2 zkia.: 77-115.

Goierriko Hitza (2014). “«Ez gatoz inori lekua kentzera, baina guk gure espazioa nahi dugu»”. [<http://goiberri.hitza.info/2014/02/03/ez-gatoz-inori-lekua-kentzera-baina-guk-gure-espazioa-nahi-dugu/>] (2014ko martxoaren 5ean kontsultatua)

Hernández García, Jone Miren (2006/2007). “Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitateak”. *Kobie*, 12.zkia.: 61-70.

Ibarguren, Leire (2009/2010). “Nolako umorea egin nahi dugu emakumeok arte eszenikoetan?”. [<http://bdb.bertsozale.com/uploads/edukiak/liburutegia/2009%20Leire%20Ibarguren-Emakumeak>]

[%20oholtza%20eta%20umorea.pdf](#)] (2014ko otsailaren 14an kontsultatua).

Juaristi Larrinaga, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak, Teoria eta adibideak*. Bilbo: EHU.

Larrañaga Odriozola, Carmen (1997). “Del bertsolarismo silenciado”. *Jentilbaratz*, 6.zkia.: 57-73.

Lujanbio, Maialen (2012). *Gaiaren trataera, bertsolarien aldetik*. Azpeitia: Sindikatu Zaharrear
eskainitako hitzaldia.

Lujanbio, Maialen (2007). *Bertsolaritza emakumearen ikuspuntutik: bertsolaritza eta emakumea*.
Orereta: bertan eskainitako hitzaldia.

Ruiz Olabuénaga, José Ignacio (2007). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbo:
Universidad de Deusto.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: GAIAK

Zortziko handia:

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze: Elikagai-bankurako jendeak borondatez emandako janariak biltzen daramate goiz osoa Maialenek eta Aitorrek. Kamioia bete dute, eta oraindik beste hainbeste geratzen zaie sartzeko.

Sustrai Colina, Amets Arzallus: Azken urteotan alkoholiko anonimoetan ibili dira elkarrekin Sustrai eta Amets. Gaur, taberna batera sartu dira kafe bana hartzera.

Igor Elortza, Aitor Sarriegi: Igor eta Aitorren lagunak ia bi hilabete daramatza desagertuta. Lokaleko sofan daude biak, beren telefonoei begira.

Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga: Beñat eta Unai prostitutak dira. Jakin berri dute isun handiak jarriko dizkietela bezeroei.

Zortziko txikia:

Amets Arzallus, Maialen Lujanbio: Bikotea dira Amets eta Maialen. Maialenek jotetxe garesti batera gonbidatu zuen Amets afaltzera. Jaki batek kalte egin, eta ospitalean bukatu dute biek.

Aitor Mendiluze, Sustrai Colina: Autoak konpontzeko tailer bateko nagusia da Aitor, eta langilea Sustrai. Gaur, Aitorrek Sustrai ikusi du bere autoa beste tailer batera eramaten.

Unai Iturriaga, Igor Elortza: Santomasetan, talo-postuan daude Unai eta Igor. Unai taloak egin eta egin ari den bitartean, Igor bezero batekin eta bestearekin berriketan dabil.

Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi: Aita-semeak dira Aitor eta Beñat. Aitor aita jubilatua eta Beñat seme komertziala dira. Beñat semeari gidabaimena 10 hilabeterako kendu diotela eta, egunero berarekin gidari-lanak egiteko eskatu dio Aitor aitari.

Puntu erantzunak:

Maialen Lujanbio

Txapelketa hedatu / da mundu osora
Diasporan badago / bertsozale franko
Internetez goxatzen / al da herri-mina

Aitor Mendiluze

Kazetari ugari / bada kartzeletan
Idaztea bihurtzen / denean delitu
Zuk ematen al duzu / zure iritzia

Sustrai Colina

Errugbi euskalduna / gero ta gorago!
Baiona ta Biarritz / ezin ezkondata
Reala ta Athletic / batuko balira

Amets Arzallus

Lehengo astean zendu / zen Nelson Mandela
Borroka egin zuen / bakearen alde
Bakezaleak gara / bakea nahi dugu

Igor Elortza

Abiadura handian / tarta eta trena
Tartalarientzako / Kartzela-zigorra
Frantzian errugabe / Españan errudun

Aitor Sarriegi

Hezkuntzaren munduan / bagoaz aurrera
Badaukagu oraindik / non ta zer ikasi
Jarraitu behar dugu / despistatu gabe

Beñat Gaztelumendi

Etorkin kopurua / beheraka doa
Jende asko poztu da / berri hau tarteko
Etixerako bidea / hartzen dutenean

Unai Iturriaga

Aberatsak aberats / orain eta lehen
Diru beltza batzuen / poltsikoetara
Inoiz jaso al duzu / beltzean dirua

Sei puntuko motza

Maialen Lujanbio, Sustrai Colina: 8 urteko haurrekin lan egiten duten bi irakasle dira Maialen eta Sustrai. Maialenek heriotzaren gaia lantzea proposatu dio Sustrairi, eta konturatu da Sustraik gaia saihestu nahi duela.

Aitor Mendiluze, Amets Arzallus: Aitorrek eta Ametsek beren seme-alaba nerabeak topatu dituzte, biluzik, elkarri argazkiak ateratzen. Aitor kezkatuta dago; Ametsek ez dio aparteko garrantzirik ematen.

Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi: Igor eta Beñaten umea hauek batere gustukoa ez duten bikote baten umearen oso lagun egin da. Igorrek uste du bikote horrengana hurbiltzeko ahalegina egin beharko luketela. Beñatek ez du ezer jakin nahi.

Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga: Hamaseina urteko bikote gaztea dira Aitor eta Unai. Unaik Aitorri esan dio haurdun dagoela.

Kartzela:

Egoerak beste aldean jarri zaitu.

10eko txikia:

Igor Elortza, Maialen Lujanbio: Igor autobusean doala Maialen bere ondokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini dio Igorrek.

Aitor Sarriegi, Aitor Mendiluze: Seme bana galdu zuten Sarriegik eta Mendiluzek 80ko hamarkadan HIESaren ondorioz. Sarriegik isilean eraman nahi izan du kontua. Mendiluzek, berriz, hitz egiteko beharra sentitu du beti.

Beñat Gaztelumendi, Sustrai Colina: Klean, bata bestearen parean, eskean daude Sustrai eta Beñat. Sustraik burua goian duela ozen eskatzen du. Beñatek karteltxo baten atzean ezkututzen du burua.

Amets Arzallus, Unai Iturriaga: Amets psikiatra da. Unai pazienteak sei hilabete daramatza Ametsen erietxe psikiatrikoan. Gaur senda-agiria eman nahi izan dio Ametsek Unairi, baina Unai esan dio oraindik goizegi dela.

Puntutan:

Aitor Mendiluze, Igor Elortza: Olentzero eta Aita Noel dira: Aitor Olentzero eta Igor Aita Noel. Tximiniatik sartu ezinik dabilta.

Sustrai Colina, Unai Iturriaga: Bata besteari lepotik heldu, eta sakelako telefonoarekin elkarrekin argazki bat ateratzen hasi dira Sustrai eta Unai. 10 minutuan ez dute itxurazko argazkirik lortu.

Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio: Herriko festetan, goizeko zortzietan, diana jotzen ari dira kalez kale Maialen eta Aitor.

Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi: Klean besarkadak dohainik emateko izena eman zuten Ametsek eta Beñatek. Petoa jantzi, eta besarkadak ematen hastera doaz.

Bakarka gaia emanda:

Aitor Mendiluze: Bertakoei lana kentzen diezula entzun behar izan duzu berriz ere.

Igor Elortza: Igor, lehen aldiz lokartu da zure besoetan.

Unai Iturriaga: Zure aita atentatu batean hil zuten. Aurten, lehen aldiz, sentsibiltate politiko guztietako ordezkariak izan dira aitaren omenaldian.

Sustrai Colina: Zu, Sustrai, ama bisitatzeraz joan zara zahar-etxera. Panpina bat du eskuan, eta hurbiltzean, hala esan dizu: xsxsxs, Sustrai lo dago.

Aitor Sarriegi: Alabarekin batera, bikotekidea bisitatzera zoaz autoan. Alabak berriz galdetu dizu: asko falta da iristeko?

Amets Arzallus: Honela esan dizu: ezin naiz zu gabe bizi.

Maialen Lujanbio: Adineko pertsona bat zara. Zure hiru seme-alabak txandaka arduratzen dira zutaz, eta lau hilabete ematen dituzu bakoitzaren etxean. Maleta egiteko unea da berriro ere.

Beñat Gaztelumendi: Adimen-urritasuna duten gazteekin balleteko dantza-taldea sortu zenuen urte hasieran. Gaur duzue estreinaldia.

Buruz burukoa

Sei puntuko motza:

Amets Arzallus, Maialen Lujanbio: Bi pailazo zarete. Arratsaldea gaixo dauden hurrekin pasatu ondoren, ospitaletik ateratzera zoazte.

8ko txikia:

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus: Maialen Lujanbioren eta Amets Arzallusen bikotekideak zarete. Apustu-makinaren aurrean zaudete, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela nork irabaziko duen apustu egiten.

Hitza, 9ko txikian:

Altzoa.

Bakarka, gaia emanda:

Itzultzeko garaia da.

2. ERANSKINA: HAUTATUTAKO SAIOAK

1. aztergaia

GOIZEKO SAIOA, ZORTZIKO HANDIA

Beñat Gaztelumendi eta Unai Iturriaga

GAIA: bi prostituta dira, euren bezeroei isun handiak jarriko dizkietela jakin berri dute. Gaztelumendi hasita.

Herriko apaiz zaharrak etortzen
pasa du hamaika urte
politikoak, enpresariak
bankutako zenbat putre
isuna haiei ipintzea nik
ederki hartuko nuke
ordaintzeko guk baino problema
gutxigo izango dute

Jakina hoiek guk baino arazo
gutxiago daukatela
baina jokoan dagona ezta
dirua edo papela
historian zenbat urte joan dira
gatazka honekin horrela
noizbait onartu beharko dute
hau ogibide bat dela

Txanpon berean agertzen gera
tamalez bi aurpegitan
esaten dute pena sortua
degula hainbat senditan
baina aukera hau nahiago det
aspertu bainaiz egitan
errudun izan beharrarekin
gizartearen begitan

Egia da bai estigma horren
azpian gu beti gabiltz
mundu hontan bada indarkeririk
eta hamaika kontu hits
baina bezero bat zigortzea
geratzen da eskas murriz
ta ez legoke arazo hori
legezko izango balitz

Bai egia da hori litzake

guretzat bide bakarra
baina tamalez legea ere
beti izaten da arra
mundu injustu honi begira
maiz irteten zait negarra
bizio hutsa da beraiena
eta gurea beharra

Ez dauka zertan beharra izan
izan liteke apeta
nik azalpenik eman beharrik
ez daukat baina zer gerta
agur laztana joan egin behar dut
agenda daukat beteta
Strauss Kahn eta bere lagunak
zerbitu behar ditut eta

2. aztergaia

GOIZEKO SAIOA, ZORTZIKO TXIKIA

Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

GAIA: santotomasetan talo postuan, Unai egin eta egin eta Igor bezeroekin berriketan. Iturriaga hasita.

Euskal talo onena
ta horrenbeste mezu
zure laguntzarekin
Igor nauzu kexu
ni taloak egiten
hemen jo eta su
eta zuk hor txistorra
dantzatzen diezu

Zu talogile zaharra
zara ta jakina
nire bide hau duzu
ulertu ezina
modernizatu nahi dut
nik langintza fina
talotegiak ere
behar du marketina

Zu zara jakituna
ba beraz egia
noski ez naiz izango
modernoezia
marketin alfer lana

dugu alegia
eta talogileak
talo aurpegia

Zuk talo aurpegia
duzula diozu
baina ez zazu egin
arren estropozu
ile zuri ta guzti
ederki zatoz zu
autentizidadea
ematen diozu

Pozik egongo zara
umorea jarriz
baldin banu talo bat
ondo betea harriz
beraz ile txuriak
ematen du neurriz
zuk donostiarrarena
eiten duzu berriz

Bikote ona gara
basati ta panpin
zu taloak egiten
ekin eta ekin
nik ere izerdia
hainbeste marketing
orain egidazu bat
txorixo onarekin

3. aztergaia

GOIZEKO SAIOA, SEIKO MOTZA

Aitor Sarriegi eta Unai Iturriaga

GAIA: 16na urteko bikote gaztea. Unaik Aitorri haurdun dagoela esan dio. Sarriegi hasita.

Urte mordoa jarraika
aspalditik hala nahita
zu bezelako neska polita
nik nola ez maita
baina didazuna aipa
kontu oso latza baita
ziur al zaude ni nauzula gaur
ume horren aita?

Kiriotan azal ta mintz

momentu triste une hits
predictorrean hori ikusita
sentitu naiz murriz
gainera zuk horrela hitz
zurea ote den zabiltz
seguru nago baina nahiago
nuke hala ez balitz

Nonbait hala komeni zen
gauzak hasirik argitzen
hamasei urte dauzkagu soilik
ta ez gera haunditzen
orduan bai pozik nintzen
ta hasirik erabakitzen
datorrenari aurre egiteko
ez naiz gai sentitzen

Hara orduko xexena
kriston trena zirudiena
onar ezazu tximur eginda
daukazula dena
kendu nahiean problema
ez jakin lerdo ahalena
konponbidea biharamuneko
pilula du izena

Ia nengoen horren zai
uff egin dut ta orain lasai
baina enekien horretaraino
zenuen heldu nahi
ta erabakitzeko gai
izanak jarri nahi alai
zu lasaiago biziko zara
eta ni ere bai

Baina ote zabiltz serio
hala aingeruak dio
guk ze datatan biziko garen
ahaztu oraindio
kondoirik gabe propio
nahiago zendun dedio
pilula orduan hartu behar nuen
gaur ez du balio

4. aztergaia

GOIZEKO SAIOA, KARTZELA

GAIA: egoerak beste aldean jarri zaitu.

Maialen Lujanbio

Nork bere mundu intimo
nork bere sexualitate
zabalduta eta bestekin
bihurtzen ditugu parte
desioek pasioek
beren arantza dakarte
neri ere harremanan
lora bihurtu zait kate
ezin da inor behartu
inor derrigorrez maite
harremanak zabal behar du
bere aukera ta ate
halako diskurtsoak maiz
egiten nitun gaur arte
nik utzi izan det baina
gaur aldiz ni utzi naute

Hain zena zoragarria
orain egin hain tamala
galdu det zure abaro
zure besoen magala
ez al nintzen ni nahi zuna
harreman bat liberala
beko sua etxean ta
noiznahi noranahira bala
orain balak ni jo nau ta
hau da destinu zitala
iruditzen zait minetan
odol hustutzen noala
orain beste alderditik
begiratzen baitet hala
nik falta dudana zati bat
beste batek daramala

Mespretxutzat hartzen degu
eta nahiago ez entzun
“nerekin nahi” galdera horrek
ezetza badu erantzun
bikoteak hausten dira
igual horrela behar zun
zuk eta biok badugu
nahikoa adimen ta zentzun
eta esan gabe doa
ze eskubide daukazu
opa dizut zoriona
aski desio maitasun
nere lore gozo zena

nahiz bihurtu zaidan asun
ezin zaitut derrigortu
zuk ni maitatu nazazun.

5. aztergaia

GOIZEKO SAIOA, KARTZELA

Ametz Arzallus

Andaluzian sortu nintzen ta
Rodríguez hiru abizen
ikasketetan nola eneukan
aski argita aski sen
hogei urte ta han hasi nintzen
venemerita serbitzen
trafikoari paso eman ta
goizetik gau izerditzen
ta azkenean Donostiako
kuartelera heldu nintzen
eta ordutik lana egin dut
intxaurrondoak astintzen

Nere izena gorroto dute
ez dakit zenbat familik
ez da izango Euskal Herrian
ikusi ez dudana mutilik
galdetzen nien hik ez ote duk
inoiz hil guardia zibilik
eta hil baduk zer sentitu duk
neure lankide bat hilik
galdera hauei erantzun arte
hor egongo haiz txintxilik
baina begiak zarratu eta
segitzen zuten isilik

Baina heldu da aro berria
nunbait bukatu da gerla
ene zain daude magistratuak
eta auzitegi gela
bi ordu dira hontaz ta hartaz
galdezka ari direla
eta orain neu nago isilik
lehen mutil haiek bezela
tokatuko zait itzal luzea
zulo bateko kartzela
baina espero dut presidenteak
indultatuko nauela

6. aztergaia

ARRATSALDEKO SAIOA, HAMARREKO TXIKIA

Igor Elortza eta Maialen Lujanbio

GAIA: Igor autobusean doala Maialen bere ondokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini dio Igorrek. Igor hasita.

Beraz behin izan zena
egizko maitasun
bihurtu da ez bero
ta ez etorkizun
negarrari zapiaz
diot gaur erantzun
eta denerako prest
nengoke ni entzun
malko hoiek benetan
lehortu ditzazun.

Laguna bihurtu zait
mataile ez putre
nere begi ertzetan
malkoak itute
musu-zapia ematen
hara ze jardute
zapia hartzen dizut
keinu horren truke
eta musua ere
eskertuko nuke.

Beraz eskatu eta
emanda aski du
mundu hontan berdintsu
gabiltza beti gu
bakarrik sentitzea
ohi dugu deskuidu
ez zara beti izango
zu bere gatibu
hortik irten liteke
neu nauzu testigu.

Zuk ere pasatuak
egunik beltzenak
ez dakit ba berdinak
ote garen denak
orain min ematen dit
senarran izenak

eninduen maitatu
maitale ez zenak
ta odolik gabeak
zauririk latzenak.

Zauri hoientzat eman
dizut lehen zapia
konpartitua baitut
zure lubakia
azaldu nahi nizuke
ondo zergatia
neure arreba izan zen
behin ikaratia
nahi baduzu har zazu
bere zenbakia.

Ba eskertuko dizut
ta zuri hori zor
ia leuntzen didan
nere hainbat min sor
telefonoz nenbilen
eztarria idor
zuk entzutea behar
bainuen derrigor
telefonoz bestalde
ez zegoen inor.

7. aztergaia

ARRATSALDEKO SAIOA, BANAKA, GAIA EMANDA

Maialen Lujanbio

GAIA: Adineko pertsona bat zara. Zure hiru seme-alabak txandaka arduratzen dira zutaz, eta lau hilabete ematen dituzu bakoitzaren etxean. Maleta egiteko unea da berriro ere.

82 urte beteta
ihartu zori den zuhaitz
azal zimurak pilatzen ditut
nere aje ta nere gaitz
bizitzeko da berandu eta
hiltzeko oraindik garaiz
etxerik etxe alderrai nabil
nere andre triste bisaiz
berriro ere maleta bete
nere erropa eta gaiz
sekula enaiz traba izango
nahiz zina egin nuen maiz
zina egina nuen bai baina

horretaraxe heldu naiz.

Zahardadeak beroa ere
bilakatzen du epela
seme-alabek hartzen naute ta
poztu behar dena dela
zaintzen didate nere dosia
ta errezeta papela
hiru hilabete denbora neurtzen
ari balira bezela
ta gero triste agurtzen naute
ezin zitekeen bestela
atetik behera ateratzen det
beti pausaje goibela
iruitzen baitzait atea ixtean
irri egiten dutela.

Trimestrekako ziklotan hara
banoa ezin amaitu
orain alabak hartu behar nau
orain bere txanda baitu
nere zai hantxe egongo da hura
ta akaso begi blaitu
amona xaharra etxean zaintzen
ai ze gazte ez gogaitu
baina nik zer egin nezake ba
jarraitu eta jarraitu
indarrik ez da baina bihotza
oraindik ez bada ahitu
heriotzaren zai bizitzeai
ezin zaio bizi deitu.

8. aztergaia

BURUZ BURUKOA, 9ko TXIKIA

HITZA: altzoa

Amets Arzallus

Haur nintzela banuen
aurpegi itzala
kopetan ximurtua
banun azala
jakin nere sendagai
beti ama zala
haren usai goxoa
ta haren kresala
amaren ahala

da unibertsala
goxoa, apala
ta zabal-zabala
ez dut inoiz ahaztuko
zure magala.